

EUSKARA

Nelida FERREIRA LOPEZ

**AHOZKO LITERATURA HAUR
HEZKUNTZAKO IKASLEEN EUSKARAZKO
MINTZAMENA HOBETZEKO
BALIABIDETZAT**

*LA LITERATURA ORAL COMO RECURSO PARA
LA MEJORA DE LA COMPETENCIA ORAL EN
EUSKERA DE ALUMNOS DE EDUCACIÓN
INFANTIL*

TFG/GBL 2013

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana

Trabajo Fin de Grado

AHOZKO LITERATURA HAUR HEZKUNTZAKO
IKASLEEN EUSKARAZKO MINTZAMENA
HOBETZEKO BALIABIDETZAT

*LA LITERATURA ORAL COMO RECURSO PARA LA
MEJORA DE LA COMPETENCIA ORAL EN EUSKERA DE
ALUMNOS DE EDUCACIÓN INFANTIL*

Nelida FERREIRA LOPEZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Nelida FERREIRA LOPEZ

Izenburua / Título

Ahozko literatura Haur Hezkuntzako ikasleen euskarazko mintzamina hobetzeko baliabidez / *La literatura oral como recurso para la mejora de la competencia oral en euskera de alumnos de educación infantil.*

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Paula KASARES CORRALES

Saila / Departamento

Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika / Filología y Didáctica de la Lengua

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua aldatu zuen 2010eko uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak bere III. kapituluan hau ezartzen du Gradu ikasketa ofizialei buruz: "... ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu".

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, *Practicum* daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakuts dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta *Practicum*ean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak lan osoan zehar garatzen dira, izan ere, lana egiterako orduan kontuan hartu dira lau urte hauetan zehar, graduiko ikasketa hauetan ikasitakoa, hau da, ahozketasuna, haur folkloreak erabilera hizkuntzaren hobekuntzarako, haur literaturaren hizkuntza baliabideak, etab.

Didaktika eta diziplinako modulua nire proposamena izeneko lanaren laugarren atal osoan zehar zehazten da. Bertan didaktikoki, haur folkloreak erabilerak haurren hizkuntza aberastu eta sakontzen duela eta horretarako zein elementu erabil eta nola landu daitezkeen ikus daitezke.

Halaber, *Practicum* moduluak euskal ahozko haur literaturaren *corpusa* ikastetxeetan xehaturik ikusten ez dela aztertze bidea eman digu. Curriculumean teorikoki idatzirik ageri dena, hainbat ikastetxeetan praktikara eramaten ez dutela ikusi dugu.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan “Familiarekin kolaborazioan”/ “En colaboración con la familia”, “Haurren eta gurasoen arteko elkarlana”/ “La colaboración entre el hijo/a¹ y la familia” eta “Ondorioak”/ “Conclusiones” izeneko atalak idatziko dira, baita hurrengo atalean aipatzen den derrigorrezko laburpena ere.

¹ Lan honek gaztelaniaz dituen ataletan *hijo/a*, *alumno/a*, *niño/a* eta halakoak idatziko dira oro har. Dena dela, kontrakoa adierazi ezean, *hijos*, *alumnos* edo *niños* agertzen delarik plural biltzailea dela ulertu beharko da.

Laburpena

Karrera guztian zehar eta Haur literaturaren didaktika ikasgaiaren ikasitako guztia kontuan izanik, lan hau horretan oinarriturik eta gidoi bat jarraiturik egin behar dut.

Burutu behar dudana lehenengo gauza ahozko tradizioaren, zehazki, haur folkloreaken gaia eskolako esparruan kokatzea izango da. Jarraian, gai honi dagozkion kontzeptuak argi eta garbi adieraziko ditut, inolako zalantzarik edo gaizki ulerturik sor ez dadin. Ondoren, ahozko tradizioa Haur Hezkuntzako *curriculum*ean txertatuta dagoen eta honen erabilera ikastetxeetan nola ematen den aztertuko dut, horretako, karrera guztian zehar praktikan izandako esperientzian oinarrituko naiz.

Azterketa honen ondoren, ahozko haur literaturaren erabilerari esker haurren ahozko hizkuntza gaitasunak hobetzeko proposamen ezberdinak azalduko ditut.

Azkenik, gai honen azterketa teorikoaren ondorioz ateratako ondorioak emango ditut.

Hitz gakoak: Ahozko tradizioa; haur folklorea; ahozko tradizioa *curriculum*ean; ahozko haur literatura; ahozko hizkuntza gaitasunak.

Resumen

El trabajo que voy a realizar está basado en lo aprendido en la asignatura Didáctica de la literatura infantil y a lo largo de toda la carrera. Este trabajo sigue el siguiente esquema:

Lo primero que voy a hacer es ubicar el tema, la tradición oral, concretamente el folclore infantil en el ámbito escolar. Seguidamente, dejaré bien definidos cada uno de los conceptos de este tema, para no dar lugar a confusiones. Tras ello, analizaré cómo está incluida la tradición oral en el *curriculum* infantil y cuál es realmente su aplicación en el aula, de acuerdo en lo vivido en las prácticas realizadas a lo largo de la carrera.

Después de este análisis, voy a exponer mis propuestas para la mejora de las habilidades lingüísticas orales, gracias a la utilización de la literatura oral infantil en las aulas de educación infantil.

Por último sacaré las conclusiones que he obtenido mediante el estudio teórico de este tema.

Palabras clave: Tradición oral; folclore infantil; la tradición oral en el *currículum*; literatura oral infantil; habilidades lingüísticas orales.

Abstract

I have done this project taking in account the skills I had learned from the children's literature didactic subject and of course, during all my university studies.

First of all, I'm going to deal with the oral tradition as a general subject, paying special attention to child folklore in scholar area. After that, I'm going to try to define different concepts that have to do with my subject, in order to avoid possible confusion.

Then, I'm going to analyze how the oral tradition is taught in the classes and if it is an important part of infant *currículum* or not. Related to that analysis, I would like to make my proposals for improving oral language skills while teaching children oral literature at school.

Finally, I'm going to expose my conclusions after the theoretical study of my whole project.

Keywords: Oral tradition; child folklore; oral tradition in the infant *currículum*; children's oral literature; oral language skills.

Aurkibidea

	<u>Or.</u>
Hitzaurrea	
1. Atarikoa	1
2. Kontzeptu nagusiak	3
2.1. Ahozko tradizioa	3
2.2. Euskal ahozko tradizioa	4
2.3. Euskal ahozko literatura	5
2.3.1. Biltzaileak	5
2.3.2. Generoak	6
2.3.3. Ahozko haur literatura edo haur folklorea	11
3. Haur folklorea Haur Hezkuntzako curriculumean	15
3.1. Curriculumak zer dio?	15
3.2. Zer egiten da gaur egun?	16
4. Haurren euskarazko mintzamina hobetzeko proposamenak	18
4.1. Euskal ahozko haur literaturaren gutxieneko <i>corpusa</i> osatu beharraz	18
4.2. Haur folklorea ikasgelan	19
4.2.1. En colaboración con la familia	28
4.3. Haur folklorea ikasgelatik kanpo	31
4.3.1. La colaboración entre el hijo/a y la familia	39
4.4. Haur folklorea ikasgela barruan eta kanpoan	43
Conclusiones	47
Erreferentziak	51

Laburtzapenen zerrenda

ANECA	Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación
ECTS	European Credit Transfer and Accumulation System
EAHL	Euskal ahozko haur literatura
HH	Haur Hezkuntza
LH	Lehen Hezkuntza
UNESCO	United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization

1. ATARIKOA

Proiektu hau Haur Hezkuntzako ikasleen ahozko adierazmena lantzeko ahozko tradizioa, zehazki haur folklorea, nola baliatu aztertzean datza. Lan hau haurren hizkuntza gaitasuna hobetzeko, egun ikastetxe batzuek aurrera eraman dituzten zenbait esperientzia partzial eta murriztuetan erabiltzen diren baliabideetan funtsatzen da.

Gai hau aukeratu eta jorrazteko aukera eskaini didate, eta horri esker, ahozko tradizioa aztertu eta honek haurrengan duen eragin positiboa aztertzeko aukera izan dut. Nire helburua haurren euskara hobetu edo aberasteko jarduera ludikoak zein garrantzitsuak diren aztertu eta egiaztatzea da.

Iñaki Arranzek "Hitza azti" izeneko liburuan aipatzen duen ideiarekin bat eginez, hizkuntzarekin jolas egiteak ere hizkuntzak dituen ahalbideez ohartarazten gaitu. Noski, Arranzek dioen bezala hori ez da inolaz ere jolasaren helburua, izan ere, jolasa ez litzateke jolasa izango asmo baten agindupean egongo balitz. Hala eta guztiz ere, uka ezina da jolasari esker norberaren hizkuntza kontzientzia eta ezagutza garatzen direla.

Egungo ikastetxe askotan zentzu zorrotz batean, folklorea ez da *curriculumeko* materiala izan. Honen zergatia, haur folklorea nola eta zein unetan irakatsi behar den ez jakitearena dela iruditzen zait, hau da, irakasleek haur folkloreaki buruzko aurre-esperientzia funtsezko eta orokor bat ez izatearena.

Internet bidez ahozko tradizioaren inguruko unitate didaktikoren baten bila hasi, hau da, ahozko haur literatura edo haur folklorea gelan nola landu daitekeen informazio bila hasi eta erantzunik gabe aurkitu naiz. Zergatik?

Praktika aldietan ikastetxe ezberdinetara joan eta orokorrean ahozko haur literatura lantzearen falta sumatu dut. Zer dela eta? ez al da ba *curriculumean*, (Nafarroako Gobernua, 2007, 34), argi adierazten, testu erraz eta ulergarrien bidez, haurrak literaturara hurbildu behar duela, literatura honen hastea gozatu, harekin dibertitu eta jolasteko bidea izan behar duela? Gurasoak euskaldunak ez badira eta eskolan lantzen ez bada, haur hauei nork transmitituko die beraien kulturaren parte den eta belaunaldiz belaunaldi transmititua izan den ahozko haur literatura hori?

Nire uste apalean gure folklore propioa ezagutu eta mantendu behar dugu jaiotzen garen unetik, izan ere, honek garrantzi handia dauka pertsona bakoitzaren garapenean. Hori dela eta, oso garrantzitsua iruditzen zait eskola ahozko tradizioaren transmisore izan behar dela, hala nola, sehaska kantak abestuz, abestiak kantatuz, haur jolasen bitartez, etab. guzti hau irakurtzen edo idazten ikasi baino lehen.

Aipatutakoaz gain, ahozko tradizioak, zehazki haur folkloreak, barne dituen hainbat baliabideri esker, eta hauek gelan erabili, hurrekin konpartitu eta jorratzeari esker, hurrek beraiek parte diren kulturako ohitura, festa, tradizio edo sinesmenak, etab. ezagutzearen interesa piztea izango litzateke beste helburuetako bat.

Ahozko tradizioa historiaren eta ohituren ezagutzaren iturria izan da. Hori dela eta, folklorearen bitartez transmititzen diren balore didaktikoen aurrean aurkitzen gara. Hori kontuan izanik, beste helburuetako bat balore horiek, hala nola, adiskidetasuna, elkartasuna, tolerantzia, errespetua, maitasuna, bakea, arrazismoa, gerrak, ezberdintasunak, errefusak, etab. ahozko tradizioaren testuetatik ikastea izango da.

XIX. mende honetako gurasoen bizimodua asko aldatu da, honen zergatia gizarte honetan daramagun abiadurarengatik, teknologia berrien eboluzioarengatik, etab. dela esan dezaket.

Garai batean, afal ostean edo bazkal ostean, familia guztia edo ia osoa sutondoan eseri eta elkarrekin hitz egiten egoten ziren denbora luzez. Egoera hauetan etxeko ipuinak, haur abestiak, asmakizunak, etab. kontatzen zizkieten elkarri.

Gaur egungo egoera ordea bestelakoa dugu. Lehen aipatu dudan bezala gizartean eman den aldaketa honen ondorioz, ekintza horiek telebista, ordenagailu, bideo-joko, eta abararengatik ordezkatuak izan dira. Hori dela eta, etxean ematen zen ahozko tradizio hori pixkanaka-pixkanaka galtzen doa. Hori horrela izanik, eta hurrek eskolan etxean baino denbora gehiago igarotzen dutela aintzat harturik, oso garrantzitsua eta beharrezkoa iruditzen zait eskolan abestiak, jolasak, kontakizunak, asmakizunak, aho-korapiloak, etab. jorratzea, aspaldi aspalditik datorkigun kate hori ez apurtzeko.

2. KONTZEPTU NAGUSIAK

Ahozko tradizioa egungo gizartean ematen den edo ez aipatu ondoren, honakoa, zehazki haur folklorea, Haur Hezkuntzako ikasleen ahozko adierazpena lantzean zentratuko naiz. Aipatutakoa kontuan izanik, lehenengo eta behin ahozko tradizioa definitzetik abiatuko naiz:

2.1. Ahozko tradizioa

Unescok (www.unesco.org) ahozko tradizioaren inguruan esaten duenarekin bat eginik, ahozko tradizioaren definizio teorikoa honakoa dugu:

“Tradizio eta ahozko adierazmen” eremuan hitzezko forma asko barne hartzen ditu, hala nola, atsotitzak, asmakizunak, ipuinak, haur kanta, kondairak, mitoak, kantu eta poema epikoak, sorginkeriak, otoitzak, abestiak, irudikapen dramatikoak, etab. Tradizioek eta ahozko adierazpenek, balio kulturalak eta sozialak, eta oroimen kolektiboa transmititzeko balio dute. Ahozko tradizioa ondarearen bidez ondorengoengan transmititu da belaunaldiz belaunaldi.

Ahozko adierazpen mota batzuk erabilera arruntekoak dira, hau da, komunitate osoak erabil ditzake. Beste batzuk ordea talde sozial jakin batzuei zuzenduak daude soilik, adibidez: gizonezkoek edo emakumezkoek soilik, edo komunitateko agureek. Sozietate askotan ahozko tradizioa transmititu eta biltzera jarduten duten interprete profesionalak estimu handia diete, beraiei esker urteak aurrera joan ahala ahozko tradizio hori ahazten ez delako.

Ahoz transmititzean, ahozko tradizioa asko aldatzen da. Kontakizunak imitazio, inprobisazio eta asmakuntzaren arteko konbinazio bat dira eta hauek generoaren, testuinguruaren eta interpretearen arabera aldakorrak izan daitezke.

Hizkuntza bat galtzen denean, zuzenean tradizioen eta ahozko ondarearen galtzera eramaten gaitu. Ahozko adierazpen horiek eta hauen jendaurreko errezitazioek hizkuntza bat salbatu eta gordetzen laguntzen dutenak dira, hiztegiek, gramatikek, edo datu baseek baino are gehiago. Hizkuntzak abestietan, kontakizunetan, asmakizunetan eta poesietan bizi dira, eta horregatik hizkuntzen babesa eta tradizio nahiz ahozko literaturaren transmisioa estuki loturik daude.

Ahozko tradizioa eta adierazpenak zaindu edo babesteko garrantzitsuena gizarte bizitzan haien presentzia mantentzea da. Bestalde, egunerokotasunean pertsonen arteko ezagutzen transmisioa egotea, gazteen eta adinekoen arteko elkarrekintzak ematea edo mantentzea eta eskolan edo etxean kontakizunak kontatzea ere biziki garrantzitsua da. Ahozko tradizioaren barne jai ospakizunak eta ospakizun kulturalak ditugu, hala nola, Santa Ageda bezperan egiten den ospakizuna, etxez etxe kantuan eta eskean ibiliz, gabon zahar egunean egiten dena, etab. Hori horrela izanik, beharrezkoa izan liteke adierazpen hauek sustatu eta testuinguru berrien asmakuntzari bide ematea, hala nola, ahozko kontakizunen jaialdi bat ospatzea, beti ere sormen tradizionalak adierazteko baliabide berriak aurkitzeko helburuarekin.

2.2. Euskal Ahozko Tradizioa

XX. mendean bilketa lan handiak egin dira corpus handiak antolatuz, klasikoenak aipatzearen horra hor Jose Miguel Barandiaranen, Resurreccion Maria Azkueren, eta Manuel Lekuonaren lan-bilduma sakon-zabalak.

Ahozko tradizioa informazio iturri handia da herriaren pentsaeren eta ohituren gainean, eta, askotan historiografiak eman dituen ikuspegien aurrean ezagutza kontrajarriak ezarri ditu, historiaren ezagutza aberastuz. Gurasoengandik seme-alabenganako irakaskuntza izan da jakituria honen oinarria. Gaur egun, ahozko tradiziotik zetorren familia transmisioak izan duen beherakada honetan, eskolaren ardurapean jarri dugu eginbehar hau, hau da, idatzizko bildumetan pilatutako ohitura eta kanta zaharrak irakastea. Honen arrazoia, D ereduan ikasten duten haur askoren gurasoak euskaldunak ez izatearena da besteak beste.

Ahozko tradizioarekin zerikusia duen ideia bat folklorea da. Ideia horri ahozkotasan hitzaren ikuspegi zabalagoak kendu dio lekua ahozko adierazpenaren alorrean. Hala ere, tradizioaren ikerketan eragin handia izan du. Folklore kontzeptuak adierazpen herrikoi osoa bildu nahi du, zein hitzekoa, zein beste baliabidez egina. Folklore, herri edo eskualde bateko ohitura, herri-literatura, sinesmen, kondaira, musika, eta abarrek osatutako multzoa da.

Hitz hori W. J. Thoms arkeologo britainiarrak asmatua da, folk (herria) eta lore (jakinduria) hitzen elkarketaz; herriaren jakinduria adierazi nahi du, beraz, ohitura multzo baten adierazle izango litzateke (www.mendebalde.com).

2.3. Euskal ahozko literatura

Ahozko euskal literatura oroimenean oinarritzen den euskal literatura mota da. Herriak sorturikoa eta ahoz eta ez idatziz igorritakoa izan ohi da. Ahozko literaturak ezinbestekoa du batek esaten, erreztatzen edo kantatzen duena beste batek edo batzuek entzuna izatea, eta baldintza horrek egoera jakin bat eskatzen du.

Hizkuntza guztietan, funtzio poetiko guztia ahozko jardunean gauzatzen da hizkuntza idatziaren aurretiko garaietan; beraz, ahozko literatura idatzizkoa baino lehenagokoa da, eta, gizakia gizaki denetik, denbora gehien gehienez ahozkoa izan da literatura guztia. Gainera, idatzizko literatura hasi eta gero ere, ahozko literaturak existitzen jarraitzen du hizkuntza guztietan, abestietan bereziki.

Euskal ahozko literaturak hainbat ezaugarri ditu, horien artean oso garrantzitsuak diren errimak, erritmoak, kantuak eta gorputz adierazpenak aurkitzen ditugu. Normalean gizartearekin lotutako gaiak lantzen dira, bat-batekoak izan ohi dira eta helburua pedagogikoa dute.

Azkenik, aipatzekoa da, ahozko euskal literatura tradizionalen sortuak direla herri-kantuak, koplak zaharrak, erromantzeak (baladak), ipuinak, bertsoak, etab. Eta gaur egun ere sortzen direnetakoak bertso eta euskal abestiak direla (http://eu.wikipedia.org/wiki/Ahozko_euskal_literatura).

2.3.1. Biltzaileak

Ahozko literaturari buruzko bilduma gutxi aurki ditzakegu. Bilduma horietatik lehenengoa XVI eta XVII. mendekoa Garibayrena dugu (1571) *Compendio Historial de las crónicas* izenekoa. Honetan Beotibarko borrokan oinarritutako bertsoa dugu eta Emilia Lasturren ahizpak garai hartako ohituretan oso zabaldua zeuden erezak abestu zituen. Hori dela eta, autore honek azaltzen du, poesi inprobisatuaren lehenengo

dokumentazioak berarengandik sortuak izan zitezkeela, beraz, egun ezagutzen ditugun bertsolarien estiloko bat izango litzateke.

Honetaz gain, ondoren euskal literaturaren biltzaile gehiago ere izan ditugu, horien artean Azkue dugu. Bere obrak *Cancionero Popular Vasco* (1918) eta *Euskalerrriaren Yakintza* (1966) Euskal Herri literatura ezagutu nahi duen edozeinentzat kontsultatu beharreko lanak dira. Aipatzekoa da Azkuek badituela material gehiago argitaratuak izan ez direnak eta Euskaltzaindiko liburutegian aurkitzen direnak.

Beste biltzaile bat Barandiaran dugu, batez ere, lan narratiboak egin ditu eta horietako hainbat *Obras Completas* (1973) deituriko liburuan argitaratu ditu.

Aita Donostiak *Cancionero Vasco* (1922) liburua argitaratu zuen. Aita Donostiaren lanak balore handikoak dira, eta berak batez ere, kantuetan zentratu izan da, bere musika eta letrarekin.

Lekuona beste euskal literatura biltzailea dugu, bere obra *Literatura oral vasca* (1935) dugu. Aipatzekoa da Lekuona literatura biltzailea izateaz gain, ahozko literaturaren aditu handia dela.

Azkenik, Antonio Zabala dugu *Euskal Erromantzeak* (1998) izeneko lana baladen corpusaren inguruan existitzen den lanik zabalena dugularik (<http://www.basqueliterature.com/basque/historia/ahozkoa/baladak>).

2.3.2. Generoak

Herri literatura liburuan argi ikus eta azter dezakegun bezala, Eusko Jaurlaritza (2009, 25-68), euskal ahozko literaturan hainbat genero aurki ditzakegu, hala nola, errefrauak eta esaerak, igarkizunak eta aho korapiloak, poesia ludiko-korala, koplak zaharrak, baladak eta kantu narratiboak, bertsolaritza, ipuinak eta herri-antzerkia eta pastoralak.

- *Errefrauak eta esaerak*

Gaur egun ezagutzen den lehenengo errefrau bilduma *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance con número sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas* izenekoa da 1596an argitaratua. 1894an Willem Van Eys holandar euskaltzaleak Alemaniako Darmstadt hirian aurkitu zuen arte, inork ez zeukan

haren berririk. Gainera, ez dago jakiterik bilduma nork egin den, baina euskara eredu hegoaldeko bizkaiera dela nabarmena da.

Errefrauak esaldi laburrak dira, gehienetan elipsiaz ulertu beharrekoak. Batzuetan esaldi izatera ere ez dira heltzen, bi hitzekin nahikoa izaten da errefraua osatzeko. Errefrauek herri jakituria jasotzen du bizitza eta ingurunearekin zerikusia duten hainbat gai edo arlotan. Errefrauak gogoratzeko errazak izaten dira, izan ere, gogoratzen laguntzen duten hainbat baliabide dituzte: laburtasuna, erritmoa, geldialdi erritmikoak, errima edo soinu-jokoak, antzeko hotsa duten hitzen bitartez eginak eta antzeko-contrako soinu-esanahien arteko jokoak.

Literatura tipo honi, izen ezberdinak eman zaizkio euskaraz, hala nola, errefrau, esaera zahar, esakune, esaera, atsotitz, etab. Aipatzekoa da ordea, zientziaren ikuspuntutik errefrau eta esaerak berezitu egin ohi direla. Errefrauek halako jakituria edo mezuren bat adierazten dute. Adibidez: “Goiz gorri, arrats euri”. Esaerek ordea, berba-kate finkoak dira, esaldi eginak, eta osotasun horrek kontzeptu zehatz bat hartzen du. Adibidez: “Olgetan-benetan”, txantxetan adierazteko.

- *Igarkizunak eta aho-korapiloak*

Igarkizunei buruz euskaraz ez daude bilduma handirik ez zahar zaharrik. XX. mendean biltzaile batzuek bere lanean halako batzuk bildu zituzten, baina, ekarpenik handiena, dudarik gabe, Azkuerena da, berak bakarrik dauzka beste guztienak bat eginda baino gehiago.

Herri literaturaren barruan, genero txikiak deitu izan zaie, *corpus* aldetik eta mamiaren aldetik besteen aldean xumeagoak direlako. Aipagarria da, kultura eta hizkuntza guztietan horrelakoak egon direla eta oraindik era badaudela.

Igarkizunei beste izen batzuek ere ematen zaizkie: asmakari, asmaketa, asmakizun, papaita, etab.

Igarkizunek formulatzeko modu jakin batzuk dituzte. Azkueren bildumatik ateratako batzuk: “*Zer dala eta zer dala*, beti handitzen joan eta hala eta guztiz ere lekurik higitzen ez *dana?*”. “*Ezetz igarri...*”, etab.

Aho korapiloei dagokionez, ahoskatzeko orduan korapilatzen diren esaldiak dira, batez ere, bost edo zortzi aldiz arnasa baten esan behar izanez gero. Aho korapiloak, berbak ondo ahoskatzen ikasteko eta mihia bizkortzeko ariketa onak dira. Adibidez: “Akerrak adarrak okerrak ditu”. “Adarrak okerrak akerrak ditu”. “Okerrak adarrak akerrak ditu”.

- *Poesia ludiko-korala*

Herri literaturako poesietako ohiko osagaiak dauzkate: dantza, musika eta letra. Aipatzekoa da, izena Lekuonari zor diogula, eta modu honetan banatu eta sailkatzen ditu:

- *Poesia dekoratiboa*: Poema laburrak, soinuak du garrantzia, berba ezagunen antzekoak baina berba horiek esan gabe. Batzuetan tarteka badira hitz ezagunak, baina hotz hitzak dira nagusi, erritmoarekin batera poemari eduki sentsitiboa ematen diote.

- *Egitura paralelistikoak*: Honelako poemetan behin eta berriz errepikatzen dira osagai berdinak, egitura berbera. Soilik hitz batzuk aldatzen dira progresioa eraginez, baina beti molde berean. Adibide ezagunenetako bat: “Oi, Pello Pello” katua dugu.

- *Leloak*: Leku eta betekizun apartekoa du. Lekuari dagokionez, hasieran eta amaieran egotea, zikloa hasi eta amaitu, biribildu egiten du. Batzuetan beste bertso bat errepikatzen da, lehenengoa indartzeko helburuarekin. Interakzioak edo “Ai ene!”, “Ai morena!” erako adierazpidek, ironia, umorea, grazia areagotzen dituenak ere sartzen dira. Triki-kopletan ohikoak dira honako ereduak.

- *Enumerazioak*: Kantu mota honetan, kateak lotzen dira, jeneralean zenbakien bidez, progresioa erakutsiz, gutxitik askora, txikitik handira, etab. beti logika bati jarraituz.

- *Elkarrizketa errimatuak*: Galdera-erantzunez osatutako elkarrizketaren bidez katea sortzen da, galdera baten erantzuna berriro itaun bihurtuta.

- *Kopla zaharrak*

Euskal herri poesiaren tradizioko altxorrik handien eta baliotsuenetarikoa osatzen dute kopla zaharrek. Koplak gehienetan sortan eta kateaturik abesten dira. Kopla bakoitza lau bertso-lerro baditu, gehienetan lehenengo biek irudi abstraktua, naturako elementuren baten erreferentzia, eta beste biek, itxuraz aurrekoekin zerikusirik edo loturarik ez daukan beste zerbait adierazten dute.

Zenbait aztertzaileek Erdi Aroan jartzen diete jatorria, aztertzaile horiek Juan Carlos Guerra, Lekuona edo Txomin Peillen ditugu.

Kopla zahar hauek batez ere urteko garai edo jai zehatzen inguruan abesten dira. Hala nola, Bizkaia eta Gipuzkoan Santa Ageda bezperan. Gipuzkoako zenbait lekutan Gabon eta Urtezahar egunaren bezperan edo Urteberri egunean ere abesten dira. Holakoetan gehienetan, eske-errondak egiten dira.

Kopla zaharrek orden bat izaten dute: lehenengo sarrera bat urteko gaiaren berri ematen duena, bigarren zatia tradizioari lotua, eta azkenez eskea egiten da eta amaitzeko agurra. Kopla guztiak ez dira bat batean asmatzen, belaunez belaun ahotik belarrira transmisio zuzenean heldu ohi dira eta garai zaharretan sortu ziren moduan onartu eta jaso ditu herriko jendeak.

- *Baladak eta kantu narratiboak*

Baladak, kantu narratibo laburrak dira eta estilo-ezaugarri bereziak dituzte, gainerako generoetatik bereizten dituztenak. Baladaren estilo berezia Erdi Aroan finkatu zen Europan orokorrean eta gaur arte iraun du, beti ere gehiago ahozko kulturak bizirik jarraitzen duen lekuetan, izan ere, egun literatura idatziak, komunikabideek eta hiri-bizimoduak asko murriztu dute ahozko transmisioaren katea.

Baladak normalean istorio labur baten berri ematen du, hasi eta amaitu. Gertaerak bortitzak edo gogorrak izaten dira gehienetan, hala nola, ezinezko maitasun istorioak, indarkeriazko heriotzak, hilketak borrokak eta antzekoak. Agertzen diren deskripzioak azalekoak izaten dira eta eszenak aldatzen direnean ez da horren berri ematen. Baladen ezaugarri nagusienetako bat etengabe aldatzen egotearena da, bai testuan baita doinuan ere.

- *Bertsolaritza*

Bertsolaritza dugu euskal ahozko literaturan adierazpenik berezkoena. Bertsolaritza bat-batean kantuan bertsoak sortzea da, gai baten edo batzuen inguruan. Bertso sortak modu diferentean osatzen dira: gai bat emanda bi bertsolari txandaka bertsoan, bi-hiru bertso bakoitzak gai baten inguruan, puntua emanda bertsoa osatzen, bertsolari bakarra gai bat emanda bi-hiru bertso botatzen.

Estrofa tipoak ere batzuetan gai jartzaileak aginduak dira, ahal nola, errimari dagokionez hainbeste puntuko bertsoak, neurrian ere zortziko txikia, nagusia edo beste neurri jakin bat eskatuta izan daiteke. Bertsoko argumentua edo mezua, hau da, bertsoaren mamia aletuz doa, eta amaierarako uzten da ideia nagusia.

Bertsolariak noizkoak diren jakitea ez da erraza, baina batzuen ustez, euskara bera bezain garai zaharrekoak izan daitezke. Honetaz gain aipatzekoa da, ez dagoela bertsoen aztarnarik ia XVIII. mende amaiera arte.

- *Ipuinak*

Ipuin, pasadizo edo istorioak esatea, nekazaritza eta baserri giroarekin lotuta dago gehien bat, familia bateko su edo mahai inguruan elkartzen zenean edo etxeakoak zein auzokoak lan ekitaldi luzeak egiten zituztenean.

Tradiziozko ipuina bizi da eta etengabe aldatzen eta moldatzen doa, esatariaren eta entzulearen arabera. Kontalariak ipuina kontatzean baliabide jakin batzuk erabiltzen ditu, jakinaren ganean edo oharkabean. Ipuin mota bat baino gehiago dago, baina ahozko narrazioek, herritik datozen eta ahoz eta memoriaren bitartez hedatzen diren kontakizunek, orokorrean, euren estilo bereizgarria daukate.

Herri ipuinen inguruan sailkapena egiteko orduan indarririk gehien daukana edo aipatuena Antti Aarne eta Stith Thomson finlandiar eskolakoena da.

- *Herri-antzerkia, pastoralak*

Herri antzerkiaren barruan, pasterala dugu adierazpen tradizionaletan garrantzitsuena. Pastoralak Zuberoan iraun du artzain giroko gizarteari lotuta. Pasterala noiz edo non sortu zen argitu gabe dago oraindik. Teoria ezberdinak daude, batzuen arabera greziar eta erromatarren antzerkiraino jo behar da haren sorreraren aztarnak bilatzeko. Beste batzuen ustez ordea, Erdi Aroan Elizetan antzezten ziren misterioekin lotzen da.

Antzezpena zelai zabal batean egiten da, eszenatoki baten gainean. Aitzinean honen iraupena egun bat edo bikoia izaten zen, baina gaur egun pastoralak berak hiru ordu inguru irauten ditu.

2.3.3. Ahozko haur literatura edo haur folklorea

Haur literaturaz hitz egitean, oso argi eta garbi utzi behar da literaturaren barnean ahozko literatura ere kontutan izan behar dugula. Are gehiago gure kasuan, ahozko literaturak pisu handia baitu Euskal Herrian.

Herri kultura bakoitzak ahozko produkzioa gustu estetiko jakin batez egin ohi du, beraz, folkloreak eta herri jakituriaren hitzezko emaitza da. Lo-kantak, olerkiak, haur-jolasak, aho korapiloak, atsotitzak, igarkizunak, etab. haur literaturak bereganatu dituen elementuak dira.

Herri bakoitzak bere folklorea du eta beraren bidez azaldu ohi ditu bere jatorria, munduaren ikuspegia eta ohitura. Bestalde, olerki eta jokoen bidez, hizkuntza ezagutza dute, esan daiteke, hizkuntzaren erabilpena dela garrantzitsuena hasierako literatura honetan: hitzak indarra hartzen du eta jostagai bilakatzen da.

Ahozko tradizioa, haurra txikitatik literaturan murgil dadin abiapuntu izan ohi da. Herri ahozko literaturatik heldu diren kanta, joko eta bertsoak, haurra jaiotzen den unetik, eskolan, etxean, kalean, etab. uneoro entzuten ditu, baita amaren sabelean dagoenean ere.

Haurrak literatur molde asko hartzen ditu ahozko tradizioaren bidetik. Honako moldeek hiru funtzio betetzen dituzte haurren garapenean, Teresa Colomer (1999, 15-38) literatura adituaren arabera:

- *Gizarte jakin batean literaturaren bidez eskaini eta partekatzen den errealitatearen irudikapen sinbolikora –imaginario kolektibora- haurra hurbildu eta harekin harremanetan jartzea.*

Literaturak ahozko tradizioetik heldu diren irudi, sinbolo eta mito ugari biltzen ditu (munduaren sortzearekin edo mitologiarekin zerikusia dutenak, balioak irudikatzen dituztenak, etab.). Irudikapen sinboliko hori, esanahi konpartitu gisa, munduarekin eta gure ondokoekin ditugun harremanak ulertzeko behar dugu.

- *Haurrak bere kulturaren diskurtso literarioa bideratzen den forma narratibo, poetiko eta dramatikoak gero eta gehiago ezagutzea.*

Edozein haurrek diskurtso narratiboaren formak erraz bereganatzen ditu haren inguruko giza komunikazioan garatzen den narrazio naturalaren bidez. Hau da, haurrak berehala ikasten du kontatzea munduaren gainean edo imajinatzen ahal ditugun gauzen gainean aritzeko modu sozialki onartua (konbentzionala) dela. Ipuinak kontatzeko ohiturak kontatzeko moduen gaineko ezagutza horiek zabalduko dizkio haurrari.

- *Haurrari munduaren irudikatze edo errepresentazio kulturalki antolatua eskaintzea, belaunaldi berriak sozializatzeko bide gisa.*

Haur literaturak belaunaldi berriak sozializatzeko funtzioa bete izan du historikoki. Hezi nahiak, hain zuzen ere, ekarri zuen haurrei zuzendutako liburuen sorrera. Azken hamarkada hauetan haur liburuen egiteko didaktikoa galdu eta beren alde literarioa nagusitu bada ere, ezin uka haur literaturak haurraren eta bere jendartearen arteko harremanak zabaltzen dituela, mundua nolakoa den edo nolakoa izan beharko lukeen ikusaraziz.

Laburbilduz, aipatutako hiru funtzio horiei esker haurrak literaturaren bidez hizkuntza eta kulturarekiko lotura afektiboa lortzen du, modu ludikoan lantzen baititu mota desberdinetako produkzioak. Honetaz gain, lotura sozial bat suposatzen dute ahozko tradizioeko ekoizpenek haurrarengan; arau sozialen ikasketa baitakarte berekin. Azkenik, soinu, hitz eta mugimenduen arteko harremana ere sustatzen du ahozko tradizioa lantzeak, ahotsa, erritmoa, intonazioa, errimak, etab. jorratzean.

Ahozko haur literaturatzat har ditzakegun ekoizpenak identifikatu eta sailkatzen baditugu, hiru motatan bereiz ditzakegu:

- Poetikoak.
- Narratiboak.
- Didaktikoak.

Modu honetako ekoizpenak Haur Hezkuntzako gela batean egunero aurkitzen ditugu, baina ni eredu poetikoetan zentratuko naiz.

Narrazio edo ipuinez gain, haurrak molde poetiko ugari hartzen ditu ahozko tradizioaren bidetik. Haurrak poesiarekin dituen lehen harremanak ahozko herri tradizioetik heldu dira: kantak, joko formulak, aho korapiloak, etab. maiz beste haurrekin edo helduekin batera aritzeko direnak.

Colomerrek (1999, 39) esaten duenarekin bat eginez, eredu poetikoen ikaskuntza, folkloreak eskuetan dago, haur poesia modernoaren garapen eskasa dela eta. Honek ez du inolako arazorik ematen edo sortzen haurren lehenengo urteetan, esparru honetako forma folklorikoen aberastasuna eta eraginkortasuna dela eta.

Folklorea ahozko tradizioa baino zerbait gehiago da, hau da, folklorea ez da noranzko bakarrekoa, ez da oinarritzen soilik transmisioan, komunikazio bat ezarri edo sortu behar da. Hori dela eta, haurrek, egokitutako papera hartzen dute: erritmo jakin batean mugitzen dira, keinu zehatz batzuk burutzen dituzte, errepikatu, erantzun, abestu, etab. egiten dute. Honako ekintzak burutzen dituztenean, haurrek arau sozialak eta hizkuntza baliabideak ikasten dituzte eta aldi berean, talde bateko partaide gisa izanik, beraien gaitasunak esploratzen dituzte. Ikuspuntu honetatik, Colomerrek haur folkloreak honako banaketa hau proposatu du:

- **Soinu eta mugimendu estimuluen arteko harremana**
ahotsa, erritmoa, melodia, intonazioa, mugimendua.
- **Lotura afektiboa, jolasa, eta honako gozamen hauen aurkitzea**
ebakera saiakerak, errepikapenak, oroimena landuz sortzea, jokia eta forma.
- **Honako gozamen hauek eragiten duten lotura soziala**

besteekin jolasean aritzea, hitzaren iaioetasuna (nork jakingo du esaten, nork igarriko, nork azalduko, nor oroituko...), arau sozialak edo munduaren funtzionamendu arauak urratzea (mundua hankaz gora ...).

Haur folkloreak adierazpen ezberdinen azpian haurra eredu poetikoekin harremanetan sartzen duten ikasketa hauek daude:

- Haurra eta helduaren arteko elkar eragiteko jokoak, ahotsean eta mugimenduan oinarrituak (txaloak jo, kilikiak egin, hatzak erabili, trostatan ibili...).
- Zotz egiteko kantak eta formulak.
- Talde eta borobileko jokoak.
- Aho korapiloak eta hitz jokoak.
- Lelo segida kateatuak eta ortofonikoak.
- Asmakizun hutsezko kantak.
- Igarkizunak.

Haur folkloreako forma guzti hauen bitartez, hurrek beraien hizkuntz gaitasunean aurrerapenak egin ditzakete eta aldi berean, poemen elementu konstruktibo ezberdinekin ohitu. Genero poetikoari dagokionez, tipo edo mota ezberdinetakoak aurkitu ditzakegu: lirikoak, narratiboak, dramatikoak, konjuruak, burugabekeriak, etab.

3. HAUR FOLKLOREA HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUMEAN

3.1. Curriculumak zer dio?

Nafarroako Gobernuaren Haur Hezkuntzako bigarren zikloko *curriculumak* ahozko hizkuntza eta haur folkloreak inguruan hitz egiten du. Jarraian, *curriculumean* bi kontzeptu hauen inguruan aipatzen dena modu labur batean azalduko dut:

Curriculumak dioen bezala, ahozko hizkuntza ikasi, jokabidea erregulatu, eta bizipenak, sentimenduak, ideiak nahiz emozioak adierazteko baliabide nagusia da. *Curriculumaren* arabera (Nafarroako Gobernu, 2007, 33-34), umeek gauzak hitzez adieraztea, ikasten ari direna, pentsatzen dutena eta sentitzen dutena ozenki azaltzea ezinbesteko tresna da identitate pertsonala eratu eta ikasteko, egiten eta izaten ikasteko. Ahozko hizkuntzaren bidez, elkarreragin batzuekin, gero eta konbentzionalagoak eta konplexuagoak diren erabilerak eta moduak ikasiko dituzte.

Ikasleek hizkuntzaren aldetik duten garapenak zuzeneko lotura du hizkuntza ongi erabiltzen dutenek harreman sozial eta komunikazioaren esparruan ematen dien laguntzarekin. Hori dela eta, irakasleek hizkuntza aberatsa eta egokia erabili behar dute, izan ere, ikasleen hizkuntza gaitasuna, entzuten duten hizkuntzaren kalitatearen eta lehendabiziko saioetatik jasotzen duten laguntzaren mende dago (ibid., 34).

Halaber, ez ditugu ahaztu behar eskolaldiaren hasieran eta etapa osoan zehar aurkitzen ditugun komunikazio egoera desberdinak: ama-hizkuntzatzat eskolako hizkuntza duten ikasleak eta ama-hizkuntza ez den beste batean hasten direnak. Nafarroako, zehazki Iruñako D ereduko ikastetxeen kasuan, bigarren hau izaten da kasurik ohikoena (ibid., 34).

Curriculumak argi adierazten du, haur literaturara hurbiltzea, literaturan hastea gozatu, dibertitu eta jolasteko bidea izan behar dela eta horretarako testu erraz eta ulergarriak erabili behar direla. Honetaz gain aipatzen da baita ere, ahozko literaturari lotutako edukietako batean, haurrek pixkanaka hizkuntzaren funtzionamendua ikasi behar dutela soinu errepikapenak, errimak, aho korapiloak eta halakoak landuz (ibid., 34-37).

3.2. Zer egiten da gaur egun?

Curriculumean zehar haur folkloreakaren lanketaren inguruan hainbat gauza aipatzen dira, aurretik zehaztu ditudanak hain zuzen, baina gaur egun ikastetxe batzuetan nik aurkitu dudana egoera bestelakoa izan da, hau da, *curriculumean* teorikoki ahozko literaturaren inguruan landu behar dela azaltzen dena, ondoren ikastetxe batzuetan ez dut honen inguruko lanketa zehatzik ikusi. Beraz, nire ustez, errealitatea beste bat dugu, teoriatik zertxobait urruntzen dena. Interneten ahozko haur literaturak barne hartzen dituen elementuak lantzeko baliabiderik aurkitu ez izanak, nire uste hori indartzen du.

Magisteritzako lau urte hauetan zehar izan ditudan praktikan ahozko haur literaturak bereganatzen dituen elementuen lanketarik edo erabilerarik ez dut ikusi. Baliteke irakasle askok aipatutako elementu hauetako asko, hala nola, atsotitzak, aho-korapiloak, igarkizunak, zotz egiteko formulak, etab. ez ezagutzea edo haurrei nola erakutsi ez jakitea. Irakasleek gelan haur folkloreako forma ezberdinak erabiltzen ez badituzte, haurrek tamalez, ezin izango dituzte ikasi ezta erabili ere (etxean ikasten dutenek izan ezik). Hori horrela izanik, haur hauek beraien kulturako zati handi bat galdu edo ezagutu gabe geratzen dira eta beraien ondorengoei ere gauza bera gertatuko zaie. Hori hala bada, belaunaldiz belaunaldi transmititu den ahozko literatura pixkanaka-pixkanaka galtzen edo desagertzen joango da.

Aitortzekoa dut, praktikatako azken aldian izan dudana esperientzian, haur folkloreakaren lanketaren zati txiki bat ikusi eta aztertzeko aukera izan dudala. Ikastetxe honetan alde batetik, gai berri bat lantzen hasten diren unean, haurrei olerki moduko bat irakurtzen diete, hala nola, udaberri, herri-hiri eta halako gaiekin loturikoa. Haurrek ondoren buruz ikasi beharra izaten dute, eta azkenik Haur Hezkuntzako gelaren batean sartu eta beste lagunei olerkia buruz esaten diete.

Bestetik, niri egokitu zitzaidan tutoreak joera handia zuen zenbait gertaera edo ekintza zehatz batzuen aurrean atsotitzak erabiltzeko. Honakoa ez da eskola mailan *curriculumak* esaten duenarekin bat eginik finkatu den zerbait. Irakasleak hainbat atsotitz ezagutzen ditu eta joera handia du hauek erabiltzeko, beraz, gelan ere haurrekin erabiltzen ditu, baina ez ahozko haur literaturak barne hartzen dituen

elementuak lantzearen helburuarekin. Irakasleak atsotitzak erabiltzen ditu ezagutzen dituelako, beste inongo helburu zehatzik gabe.

Erabiltzen dituen atsotitz horietako bat eta gela horretan gehien entzuten zena gezurraren ingurukoa zen. Irakasleak, hura gelan asko errepikatzen zuela ohartu zenean, paper batean idatzi eta gelako arbelean itsatsi zuen.

Haur batek gezurren bat esaten zuen bakoitzean, irakasleak arbelera seinalatu eta ozenki atsotitza esaten zion: *“Lagun ona da txakurra eta txarra gezurra”*.

Hori dela eta, gabezi batzuk ikusten ditut, beraz, gabezi horiei erantzuteko asmoz, haurren euskarazko mintzamina hobetzeko proposamenak jarraian azalduko ditut.

4. HAURREN EUSKARAZKO MINTZEMENA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

4.1. Euskal ahozko haur literaturaren gutxieneko *corpusa* osatu beharraz

Hasteko aipatzekoa dut, ikastetxeetan folkloreaken *corpus* hori ez dugula xehaturik ikusten. Horri aurre egin ahal izateko, lehenengo eta behin irakasleek argi izan behar dute edo ondo ezagutu behar dute haur folkloreaken *corpusean* zer sartzen den. Ondo ezagutu behar dutela diot, askorentzat euskara bigarren hizkuntza delako eta ziurrenik EAHL barne hartzen dituen elementuak txikitatik jaso ez dituztelako. Behin sartzen dena ezagututa, bilketa bat egin beharko dute, eskolan edo zehazki maila bakoitzean landu nahi dituzten elementuak zeintzuk izango diren zehaztu ahal izateko.

Honetaz gain, irakasleek ahozko haur literaturak barne hartzen dituen elementu hauek nola irakatsi daitezkeen adostu edo zehaztu beharko dituzte eta ondoren ikasgelan modu formalago batean edo ikasgelatik kanpo modu informalago batean irakatsiko dituzten zehaztu eta adostu.

Aipatutako guztia kontuan izanik, nire proposamena burutzerakoan egin dudana lehendabiziko lana *corpusa* osatzea, biltzea, sailkatzea, aukeraketa bat egitea, etab. izan da. Iturri ezberdinetatik egindako bilketa eta aukeraketaren ondoren, alde batetik ikasgela barruan landuko dudana eta bestalde ikasgela kanpoan modu informalago batean irakatsiko dudana zehaztuko dut. Azkenik, elementu bakoitza ikasgela barruan zein kanpoan nola landuko dudana ere zehaztuko dut.

Jarraian aipatutako nire proposamena azalduko dut, ikastetxeetan faltan bota dudana horren ekarpena egiteko. Honetarako esan bezala ikasgelako irakaspenean eta ikasgela kanpoko irakaspenean (jolastokian adibidez) oinarrituko naiz.

Proposamenarekin hasi baino lehen, argi utzi nahi dut nire helburua ez dela hurrei ulertaraztea edo hurrek buruz ikastea ahozko haur literatura zer den, zehazki haur folklorea zer den, edo ahozko literaturak dituen ezaugarriak zeintzuk diren eta bakoitza zein generotakoa den, etab. Nire helburua hurrek ahozko haur literaturak bereganatu dituen elementuak, hala nola, aho korapiloak, igarkizunak, haur jolasak, etab. ulertu eta beraien egunerokotasunean lagunekin, familiarekin, irakaslearekin, etab. erabil ditzaten bultzatzea da. Aipatutako prozesu honi esker, nire helburu nagusira iritsiko

ginateke, hau da, jarduera ludiko horiei esker hurrek beraien euskara hobetu eta aberastea.

Haur folklorea gelan lantzeko ez dut unitate didaktiko bat sortuko, hau da, honen lanketa ez dut gainerako eduki programatuak lantzen diren bezala landuko. Hori horrela izanik, irakasleak erabakiko du egun bakoitzeko zein momentutan baliatuko den ahozko haur literaturaren elementuez hurren euskara hobetzeko.

Haur literaturaren tradizioaren bidez hurrek hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran aurrera egiten dute eta hizkuntzaren baliabide erretoriko-poetikoaren osagai diren elementuekin ohitzen dira. Hori horrela izanik, jarraian ahozko haur literatura edo haur folklorea, hurrekin nola landu edo hurrei nola transmititu ahal diezaiekegun azalduko dut.

Alde batetik, haur folkloreak barne hartzen dituen jarduera batzuk azalduko ditut, ikasgelan modu formalago batean landu daitezkeenak hain zuzen. Bestetik, ikasgela kanpoan modu naturalago batean landu daitezkeenak.

Honetarako, Nafarroan ahozko tradizioetik bildu diren adibide batzuk aipatuko ditut. Aipatzekoa da gehienak Baztango ahozko tradizioetik hartuak direla (Lakar eta Telletxea, 2006).

4.2. Haur folklorea ikasgelan

Ikasgelan modu formalago batean landuko ditugun jarduerak honakoak izango dira:

- Atsotitzak:

Mundua ikusteko era bat erakusten dute. Bizitza praktikorako oso baliagarriak diren aholkuak dira, egunerokotasuna adierazten baitute. Hori dela eta, atsotitzei esker hurrek hizkuntzaren erabilera eta ulermena aberastuko dute.

Hori horrela izanik, atsotitzak erakusteko modurik egokiena, gelan gertatu edo ematen diren ekintzen aurrean hurrei gertaera horrekin zerikusia duen atsotitz bat esatea izango litzateke. Adibidez: hurren batek gezurren bat esanez gero, irakasleak modu honetara erantzun liezaioke;

Ez ahal duzu entzun inoiz esaera hau?

“Gezurra esan nuen Getarian eta ni baino lehenago zen atarian”.

Atsotitzak erabiltzeko beste momentu bat patioan izan liteke. Adibidez: bi hurrek elkarri harriak botatzen ari direla, irakasleak modu honetara esango die:

“Harriak ez du begirik”. Hurrei azalduko zaie harria ez dela beti batek nahi duen lekura joaten, beraz, kontuz ibili behar dela.

Irakasleak momenturen batean hurrak isilik egotea nahi badu baina hauek isiltzen ez badira, honela zuzenduko ginateke beraiengana:

“Umeak! Isilik oiloak pixa egin arte”.

Atsotitzak erabiltzeko beste momentu bat hurrek lanak korrika eta presaka egiten dituzten unea izan liteke. Honelakoetan hau esan ohi da:

“Lan lasterra lan alperra”.

Ikusi bezala, milaka atsotitz ditugu une edo egoera jakin bakoitzerako, baina jakina, irakasleok ezin ditugu guztiak jakin edo ezagutu. Kasu honetan argi ikusten den bezala, irakaslearen zeregina da garrantzitsuena, izan ere, atsotitzak ezagutu behar ditu hurren aurrean edozein momentutan erabili ahal izateko.

Gomendagarria litzateke gelan erabiltzen diren atsotitzak behin eta berriz berdinak erabiltzea ekintza berbera behin baino gehiagotan errepikatzen denean, adibidez: hurrek gezurren bat esaten dutenean, irakasleak *“Gezurra esan nuen Getarian eta ni baino lehenago zen atarian”* atsotitza erabiltzen badu, aldioro gelan gezurren bat esatean atsotitz hau erabiltzea litzateke egokiena, modu honetara hurrak behin eta berriz entzun ondoren, inkontzienteki buruz ikasiko dute.

Aipatutako atsotitz hauek Ormazabal (1981) liburutik hartuak dira.

- Zotz egiteko formulak:

Gelan uneoro suertatzen dira zotz egiteko formulak erabili daitezkeen hainbat momentu, horietako bat, ariketa bat burutzean lehenengoa nor izango den, bigarrena,

hirugarrena, etab. erabakitzekoa izan liteke. Modu honetara irakasleak ausaz haur bat hautatzearena ekidingo da.

Zotz egiteko formula ezberdinak daude, baina komenigarria litzateke hasiera batean gelan bakar batzuk erabiltzea (pare bat) eta haurrek hauek ikasi dituztenean pixkanaka berri batzuk gehitzen joatea besteak ere ezagutu ahal izateko.

Haurrek zotz egiteko moduekin batez ere ahotsa, erritmoa, melodia, intonazioa lantzen dute eta honekin batera mugimendua ere. Oso garrantzitsua da abesten den momentuan haurrak beste haur bati seinalatzen dionean eta ondoren hurrengoari seinalatzera pasatzen denean, abestiaren erritmoa seinalatzearen erritmo horretara moldatzea, abestiaren erritmoa aurreratu edo atzeratu gabe. Beraz, irakaslearen zereginik garrantzitsuena hasieratik erritmoak ongi markatzea izango da. Zotz egiteko formula hauek Lakarren eta Telletxearen (2006) liburutik eta internetetik (<http://centros.educacion.navarra.es>) hartuak dira. Zotz egiteko modu batzuk honakoak ditugu:

<i>Dona, dona, katona,</i>	<i>Martin bonbin</i>	<i>Don don kikilikon</i>
<i>sutondoan aitona,</i>	<i>errege eta sorgin</i>	<i>saltsa pika tortolika</i>
<i>lepotik behera kuttuna,</i>	<i>tipula eta gatza</i>	<i>patinean</i>
<i>kanpora neska-mutil</i>	<i>martin, ipurdi latza.</i>	<i>korrika</i>
<i>tuntuna,</i>		
<i>azeituna, babarruna,</i>		
<i>atera dadila</i>		
<i>neska-mutil tuntuna.</i>		

- Olerkiak:

Olerkiak gelan edozein momentutan landu daitezke, modurik egokiena hasiera batean behintzat, irakasleak ozenki irakurtzea izango da. Gomendagarria litzateke gelan irakurtzen diren olerkiak lantzen ari diren gaiarekin lotura izatea, adibidez: “udaberria” gaia lantzen ari badira, irakasleak irakurriko dituen olerkiak udaberriarekin lotura

izatea, modu honetara olerkiei esker hurrek gaiarekin lotutako hiztegia aberastu dezakete hitz berriak ikasiz.

Gomendagarria litzateke baita ere, hautatzen diren olerkiak hauren atentzioa erakartzeko modukoak izatea, hauren adinerako egokiak izatea eta batez ere, hauren hizkuntzen mailakoak izatea. Egokia litzateke irakasleak olerkia irakurri eta hurrek olerki bera behin eta berriz errepikatzea, modu honetara hurrek buruz ikasiko lukete, eta bide batez memoria landuko lukete. Behin buruz ikasi dutelarik, ariketa polita izango litzateke gainerako gelako haur eta irakasleei olerkia ahoz esatea.

Beste jarduera polit eta aldi berean aberasgarria, gelako guztien artean olerki bat asmatzea litzateke. Honetarako oso garrantzitsua da alde zuzenetik olerki askorekin lan egitea, batez ere, hurrek hauen egitura nolakoa den barneratu dezaten.

Gelan landu daitekeen beste gaietako bat "Urtaroak" gaia izan liteke. Hau adibide bezala hartzen badugu, Ormazabalek eginiko bi olerki hauek landu daitezke hurrekin (<http://kurubioa.blogspot.com.es/2010/05/olerkiak.html>):

Gure mundua

*Hostoak agur
udazkenean zuhaitzari
elurak ere bai
udaberriko eguzkiari.
Etorri eta joan
jaio eta hil.
Gure mundua
biribil borobil
biraka dabil.
Elurra beltz
eta ikatza zuri.
Odola berde
porrua gorri
egia gezur
gezurra egi...
metro beteko sudurra
hazi zait niri.*

Eguzkia elurretan

*Elur bigun hotz-hotzak
soineko txuri-txuriz
jantzi ditu
lizar eta haritzak,
azukrezko maindirez
estali harkaitzak.
Zelai zuri leunean
irrista ta txirrista
jolasean dabilta
eguzkiaren printzak*

- *Ipuinak hasteko eta bukatzeko formulak*

Ipuinak irakurtzen hasteko eta amaitzeko formula ugari ditugu, eta egun ere eskoletako irakasleek ipuinak ikasleei kontatzen dizkietenean, maiz entzuten ditugu. Irakasle bakoitzak normalean ipuinak hasi eta amaitzeko formula bera erabiltzen du ipuin ezberdinetan. Haurrek ere hasteko eta amaitzeko formula hauek horrenbeste aldiz entzunda, buruz jakiten dituzte.

Aurretik aipatu bezala, irakasleek normalean hasteko edo amaitzeko formula bat edo bi erabiltzen dituzte gehienez. Ohikoenak adibidez:

Hasteko: *Bazen behin ...*

Bukatzeko: *Hori hala bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila ___-ko plazan.*

Ipuinen hasierako eta bukaerako formulak lantzea oso garrantzitsua iruditzen zait, modu honetara haurrek hasierako formula hori entzuten dutenean, jakingo dutelako ipuin bat kontatzera doazela, hau da, identifikatuko dute kontatzera doazena ipuin bat dela, asmatutako zerbait. Baina batez ere, ipuinen hasierako eta bukaerako formulen erabileraren helburua, hauen bitartez ematen den ikasketa literarioa da.

Hori horrela izanik, garrantzitsua ikusten dut irakasleek formula gehiago ezagutu eta ikastearena, ondoren hauek gelan erabili eta haurrek ezagutu eta ikas ditzaten.

Jarraian ipuinak hasteko eta bukatzeko formula batzuk aipatuko ditut, hauek Etxaniz (1982) liburutik ateratakoak dira:

Ipuin hasierak:

Orain urte asko...

Oraindio urte asko ez dela...

Aintzina, ugarazioak edo igelak harriakaz berba egiten zutenean...

Behin munduan, asko legez, mutikotxo bat bizi zen...

Gomuta ez dudan herri batean...

Aintzina, belar-txor-abere-patariek heuren berbertea ahaztu baino lenentxoago

Munduan asko bezala...

Aintzinean munduan asko legez...

Munduan asko legez arto koxkolez...

Behin batean...

Gauza guztiek hizketan zekiten denboran gertatu omen zen...

Antzina, behi, ardi eta animalia guztiek, eta belar eta arbolek berba egiten zutenean...

Sekula ez zait ahaztuko...

Bizkaiko ipuinetako senar-emazte askoren antzera...

Euskaldunen artean oso gutxitan gertatu izaten dena...

Herri batean bizi ziren...

Lur eta aberastasun handiak zeuzkan etxe batean...

Garai hartan...

Gizaldi honen hasieran bazen...

Ipuin bukaerak:

Egia bada, sakelean sar.

Egia bada, sakelean sar; gezurra bada, atera ez dadila.

Haiek ondo bizi izan baziren gu ondo bizi izan gaitezen.

Aditzeko belarririk duenak aditu era ikas dezala.

Handik aurrera, lanik egin beharrik gabe, ama eta semea ondo aberats bizi izan ziren.

Handik aurrera denak pozik eta pakean bizi izan ziren urte askotan.

- Aho korapiloak

Aho korapiloak lantzeko ezinbestekoa dugu errepikapena. Irakasleak eguneko edozein momentutan denboratxo bat eskaini behar dio honelako jarduerari. Lehenik eta behin

irakasleak argi izan behar du aho korapiloa nola den haurrak ez nahastu ahal izateko. Hasiera batean aho korapiloa bat-batean esan eta hurren erreakzioa ikustea polita litzateke. Ondoren, haurrak baretu direnean, irakasleak poliki eta oso argi berriro ere aho korapiloa errepikatuko luke.

Aho korapiloak ikasi ahal izateko, banaka erakustea dugu modurik hoberena. Irakasleak ikusten duenean haur guztiek aho korapiloa menderatzen dutela, beste aho korapilo bat irakasten hasiko litzateke. Aho korapilo guztiak irakasleak aukeratu ordez, jarduera polita litzateke haur bakoitzak (nahi duenak) etxetik aho korapilo bat buruz ikasita edo paper batean idatzirik ekartzea eta ondoren guztiek batera gelan ikastea.

Azkenik, hiruzpalau aho korapilo ikasi dituztenean, ariketa bikaina litzateke “telefonoetan” jolastea. Honetan, haurrak eta irakaslea borobilean eserita (“apatx” moduan) batek beste bati belarrira esan diona, hark hurrengoari belarrira esatean datza. Abiapuntua haur bat edo irakaslea izango da, eta honek erabakiko du zein aho korapilo pasa nahi duen gainerako lagunei. Aho korapiloa berriro ere igorri duenarengana iristen denean amaitzen da joko, baina bi aukera daude: lehenengoa, aho korapiloa zuzen iristea edo bigarrena, aho korapiloa osatu gabe edo akatsekin iristea.

Joko hau geroz eta zailagoa izango da hurrek gero eta aho korapilo gehiago ikasten doazen heinean arazo gehiago izango dituztelako guztiez oroitzeko. Hori horrela izanik hurrek atentzio gehiago jarriko dute joko ongi egin ahal izateko.

Hasieran landuko diren aho korapiloak motzak izango dira, haurrak haietara ohitu eta buruz errazago ikasi ahal izateko. Gerora pixkanaka-pixkanaka aho korapiloen luzera handitzen joango da eta egitura aldetik zailtzen ere. Hona hemen adibide batzuk, errazenetik zailenetara emanak (<http://centros.educacion.navarra.es>):

*Akerrak adarrak okerrak
ditu.*

*Zirrin-zarran,
zirrin-zarran,
mattin zozo zerran.*

*Trukatruk. musu-truk.
trukatruk. musu-truk.
triki-traka. kuku-praka.
triki-traka. kuku-praka.*

- Igarkizunak

Igarkizunek (asmakizunak, asmaketak edo asmakariak) alde batetik, jolasteko aukera ematen digute. Baina bestetik, baliabide didaktiko paregabeak dira. Jolasa aipatu dut, izan ere, haur bakoitzak bere kontura etxean, eskolan edo kalean bere lagunekin edo helduekin, elkarrekin jolasean aritzeko aukera eskaintzen dute asmakizunek.

Hasiera batean gelan lantzen hasten garenean, lantzen ari garen gaiko hitzak erabiltzea izango litzateke egokiena, modu honetara haurrek hiztegia barneratu duten aztertu ahal izango dugu.

Asmakizunek, hasieran batez ere, esamolde batzuk izaten dituzte, eta hauek aldatu egiten dira leku edo zonaldearen arabera. Haurrei zein erakutsiko zaien erabakiko da, edo irakasleak hautatuko du zein izango den gelan erabiliko duten esamoldea.

Jarduera hau edozein momentutan burutu daiteke, irakasleak egokia ikusten duen momentuan beti ere, hala nola, gelan borobilean eserita daudenean, patioan, komunean daudenean, etab.

Haur Hezkuntzako hurrekin gaudenez eta irakurtzen eta idazten oraindik denek ez dakitenez, ariketa erraztu egin behar da, hau da, helduekin normalean asmakizunetan, asmatu nahi den hitzaren haserako eta/edo bukaerako letra esan ohi da. Hurrekin orde hasierako silaba esango dugu, eta denbora batez asmatzen ez badute, lehenengoa eta bigarrena.

Hauek dira tokiaren arabera erabiltzen diren esamoldeetako batzuk, batez ere asmakizunen hasieran:

- Ikusi makusi (gainerakoek: zer ikusi?) ikusten dut ikusten dut gauza bat hasten dela “...” eta amaitzen dela “...” [Gipuzkoa]
- Ez dakizu zer den...? [Burunda]
- Ez dakizuela zer den... [Leniz (Bizkaia)]
- Zer dela eta zer dela (honelako eta halako izakia...) [Bizkaia]
- Pipitaki papataki, nik badakit gauza bat... [Zaraitzu]

- Ez duala igartzen (eztukala igartzen)...; Ez duala pentsatzen (eztukala pentsatzen)... *[Zaraitzu]*
- Hik papaita, nik badakiat gauza- Zer gauza (gaiza)? *[Zuberoa]*
- Xurixko, belxko, pentsatzeko gaiztoko *[Lapurdi]*
- Xurixko eta laxko, asmatzeko gaixto *[Larraun]*

Zenbait igarkizun:

- Zer dela eta zer dela, beti handitzen dena eta lekutik mugitzen ez dena. *(Zuhaitza)*
- Atzean bi zulo eta aurrean bi punta. Zer da? *(Guraizeak)*
- Zer da ez duenak duenari ematen diona? *(Lotsa)*
- Balio ez jateko eta bera gabe ezin bizi *(Airea)*
- Luze da, luze, soka bezala: hortzak ditu, otsoak bezala *(Sasi)*
- Ahuntz bat orroka bi mendien tartean *(Puzkerra)*

4.2.1 En colaboración con la familia

De acuerdo con lo que dice Bellido en su trabajo llamado “La tradición oral en la etapa infantil”, hoy en día hay muchas revistas, libros, internet, etc. donde podemos encontrar miles y miles de canciones, poesías actuales y otras formas de tradición oral. Pero para poder enriquecer la enseñanza de los niños, la mejor manera sería trabajando los diferentes elementos que la literatura oral nos ofrece. Podemos encontrar multitud de cuentos, retahílas, juegos, canciones, etc. relacionados con la tradición oral que podemos enseñar en el aula de una manera lúdica y didáctica. Para ello el papel del profesor/a es fundamental, pero gracias a la participación y colaboración de los familiares, el trabajo realizado en clase, se podrá reforzar en casa implicándoles de una manera muy activa.

Podemos empezar a trabajar el folclore tradicional en el aula utilizando los recursos más conocidos y comunes. Además, podemos organizar visitas durante el curso. De este modo conoceremos a los familiares de los alumnos, como por ejemplo a sus abuelos y abuelas. El objetivo de esas visitas es que esos familiares podrán contarnos o explicarnos sus experiencias, e incluso, aprovechar para pedirles que nos canten una canción, que nos enseñen algún juego de sus infancias, que nos cuenten algún cuento, etc.

Según la ubicación en la que esté situada la escuela, puede que todos los padres o todos los familiares de los alumnos no sean vascos. Esto no tiene porqué ser un problema, todo lo contrario, puede ser algo positivo para los alumnos e incluso para el profesor/a. Gracias a esto, los alumnos además de conocer la tradición oral vasca, tendrán la oportunidad de acercarse y conocer la tradición oral de otras culturas. Además de ello, esto será muy enriquecedor para los niños, ya que podremos hacer comparaciones entre las diferentes tradiciones orales.

La actividad que ha realizado Bellido en su trabajo (que los familiares de los alumnos colaboren en clase), me ha parecido muy interesante, por lo tanto, teniendo en mente su idea, yo también la utilizaré y la insertaré en mi propuesta.

Para poder conseguir la participación de todos o casi todos los familiares de los alumnos, se aprovechará la semana de maquinista (responsable de realizar las tareas

rutinarias de la clase) de cada uno de ellos, en la que se incluirá una nueva actividad, la visita de sus familiares a la clase. Además del recurso mencionado, utilizaré otro. Este recurso consistirá en obtener una hermosa colección del folclore infantil, para ello, le pediremos al alumno que le pregunte a algún familiar suyo, como por ejemplo, el abuelo o la abuela, el padre o la madre, los vecinos, el tío o la tía, etc. para que les cuente un cuento de cuando ellos eran jóvenes, les canten una canción que recuerden de su infancia, les expliquen un juego al que jugaban ellos cuando eran niños, etc. Después el alumno lo podrá compartir en clase con los demás compañeros y compañeras.

Teniendo en cuenta que los alumnos puedan tener dificultades en memorizar lo que sus familiares les hayan contado, creo que lo más adecuado será crear una ficha para que puedan rellenarlo sus familiares.

La ficha mencionada se hará llegar a los familiares mediante el alumno/a. Esta ficha tendrá que ser rellenada por algún miembro de la familia y este tendrá que traerlo a clase para que los demás compañeros puedan tener información sobre lo que hayan escrito las otras familias.

Las fichas que repartiremos a los estudiantes tendrán dos partes, en una se escribirá sobre los juegos de sus infancias y sus explicaciones, y en la otra canciones, trabalenguas, adivinanzas, etc. Ésta será la estructura de las fichas mencionadas:

Para los juegos:

Cuestionario: Juegos de la infancia

Nombre y edad del informante:

Parentesco con el alumno/a:

Nombre del juego:

Contexto en el que se aprendió el juego:

¿Cómo se juega? (Nº de los jugadores, la edad, el material, donde se puede jugar, etc.):

Para los textos:

Cuestionario: Una canción, juego, trabalenguas, etc. de tu infancia.

Nombre y edad del informante:

Parentesco con el alumno/a:

Tipo de texto:

Título:

Contexto en el que se aprendió el juego:

Texto:

4.3. Haur folklorea ikasgelatik kanpo

Behin gelan landu ditzakegun jarduerak azertu ondoren, ikasgela kanpoan, hala nola, jantokian, siestako orduan, patioan, etab. naturalki irakasten diren zenbait jarduera aipatuko ditut orain.

Haur jolasen artean mota ezberdinak dauzkagu: esku jokoak, kuriketan (ezkutaketa jolasa), Sorginka (harrapaketetan), sokasaltoan, etab. Guztiak jarduera ludikoak dira, mugimenduzko jokoak. Hau horrela izanik, jarduera hauek modu informaleko batean landuko ditugu, hala nola, patioan edo psikomotrizitate gelan. Jolas hauek jolastuz ikasiko dituzte, horregatik oso garrantzitsua da irakaslea patioko garai edo momentu hauetan hurrekin egon eta modu natural batean jarraian aipatuko ditudan jolasak irakastea.

Haur jolas hauek zeintzuk diren, nola jolasten diren, arauak zeintzuk diren, etab. hurrei erakustea izango da helburuetako bat, baina helbururik garrantzitsuena, hauen erabilerari esker euskararen erabilera eta aberastasuna bultzatzearena izango da.

Jolas hauek normalean atsedean garaian, bazkal ostean, herriko plazan, parkean, etab. jolastu izan ohi dira eta hainbat zonaldeetan oraindik ere jolasten dira. Toki hauetan irakaslearen (tutorearen) presentzia egoten ez denez, eta haur guztien ama hizkuntza euskara ez denez, haur hauek erdaraz aritzeko joera izaten dute, hau da, lagun guztiek euskaraz hitz egiten badakitela jakinda ere, hurrek erdaraz jolasteko joera izaten dute. Hori horrela izanik, txikitatik jolas hauek euskaraz nola diren eta jolas bakoitzean erabiltzen diren abestiak, formulak, etab. euskaraz irakatsiz gero, hurrek buruz ikasiko lituzkete eta inkontzienteki gainerako hurrekin jolas hauetara jolastean euskaraz arituko lirateke.

Jarraian joko forma bakoitza aipatu eta bakoitzean zein mota dauden azalduko dut:

- *Esku jokoak:*

Izenak esaten duen moduan eskuekin jolasteko jokoak dira, eta normalean abestiren batekin lotuak egoten dira. Mota ezberdinetakoak daude: batzuk taldean jolastekoak izan daitezke, borobilean eserita edo zutik (jolasaren arabera), eskuineko eskua beheara begira eta ezkerrekoa gora begira daudela, ondoko jolaskideen eskuak jo eta ondoren

norberaren eskuekin txalo egin behar da. Jolas hauek “Euskal jolasak” izeneko liburuxkatik ateratakoak dira. Mota honetako jokoak hauek izan daitezke:

Aurretik aipatutako esku mugimendu horiek abestia bukatu arte errepikatuko dira, baina abestiak jolaskide bakoitza jaio den hilabetea aipatzen duenean, jolaskide hori makurtu egingo da, eta jarraian altxatu. Horrela, abestiak irauten duen tartean jolaskide guztiak makurtu eta altxatu beharko dira.

Hilabeteak

*Urtarrila lehena
bigarren otsaila
hirugarren martxoa
gero apirila
maiatza jakin ezazu
da bosgarren hila
seigarrena ekaina
ondoren uztaila
abuztua guretzat
hilabete ona
iraila eta urria
gora udazkena
azaroa nola den
hamaikagarrena
azkena abendua
hamabigarrena*

Aurretik aipatutako esku mugimendu horiek abestia bukatu arte errepikatuko dira, baina aipatzen den gorputzaren atalaren arabera soinuak eta soinuei dagokien keinua aldatzen dira:

Eskuaren soinua, PLAS-PLAS = bi txalo. Hemen ESKUBIDUBIDU esan ondoren PLOF-PLOF eta PLAS-PLAS egin behar da, hau da, lehenengo hankaren soinua egin eta ondoren eskuarena.

Belarriaren soinua, TILIN-TALAN = belarriak ukitu.

Hemen ESKUBIDUBIDU esan ondoren PLOF-PLOF, PLAS-PLAS eta TILIN-TALAN egin behar da, hau da, lehenengo hankaren soinua egin, ondoren eskuarena eta azkenik belarriena. Gauza bera egin behar da gainerako gorputz atalekin:

Begien soinua, TIK-TAK = begiak ukitu.

Sudurraren soinua, MOK-MOK = sudurra heldu.

Ahoaren soinua, AAAAH = ahoa ireki eta ezpainak ukitu.

Ilearen soinua, ZZIIII = ilea eskuarekin ukitu.

Ipurdiaren soinua, BOIN-BOIN = ipurdia alde batera eta bestera mugitu.

Eskeletoaren soinua, KROK-KROK = gorputz guztia mugitu, besoak aurrera luzatuta jarrita.

Bukaeran soinu guztiak jarraian egin beharko dira, baina pixkanaka erritmoa mantsotuko dugu, eskeletoaren soinua eginez gelditu arte.

Eskubidu

*Hankaren soinua plof-plof
hankaren soinua plof-plof
hankaren soinua plof-plof
eta eskubidubidu
plof-plof
eskuaren soinua plas-plas*

<p><i>plof-plof plas-plas tilin-talan mok-mok tik-tak</i></p> <p><i>ahoaren soinua aaah</i> <i>ahoaren soinua aaah</i> <i>ahoaren soinua aaah</i> <i>eta eskubidubidu</i></p> <p><i>plof-plof plas-plas tilin-talan mok-mok tik-tak aaah-aaah</i></p> <p><i>ilearen soinua zzziii</i> <i>ilearen soinua zzziii</i> <i>ilearen soinua zzziii</i> <i>eta eskubidubidu</i></p> <p><i>plof-plof plas-plas tilin-talan mok-mok tik-tak aaah-aaah</i> <i>zzziii-zzziii</i></p> <p><i>eskuaren soinua plas-plas</i> <i>eskuaren soinua plas-plas</i> <i>eta eskubidubidu</i> <i>plof-plof plas-plas</i></p> <p><i>belarriaren soinua tilin-talan</i> <i>belarriaren soinua tilin-talan</i> <i>belarriaren soinua tilin-talan</i> <i>eta eskubidubidu</i></p>	<p><i>plof-plof plas-plas tilin-talan</i> <i>sudurraren soinua mok-mok</i> <i>sudurraren soinua mok-mok</i> <i>sudurraren soinua mok-mok</i> <i>eta eskubidubidu</i></p> <p><i>plof-plof plas-plas tilin-talan mok-mok</i> <i>begien soinua tik-tak</i> <i>begien soinua tik-tak</i> <i>begien soinua tik-tak</i> <i>eta eskubidubidu</i></p> <p><i>ipurdiaren soinua boin-boin</i> <i>ipurdiaren soinua boin-boin</i> <i>ipurdiaren soinua boin-boin</i></p> <p><i>plof-plof plas-plas tilin-talan mok-mok tik-tak aaah-aaah</i> <i>zzziii-zzziii boin-boin</i></p> <p><i>eskeletoaren soinua krok-krok</i> <i>eskeletoaren soinua krok-krok</i> <i>eskeletoaren soinua krok-krok</i></p> <p><i>plof-plof plas-plas tilin-talan mok-mok tik-tak aaah-aaah</i> <i>zzziii-zzziii boin-boin krok-krok.</i></p>
---	--

Bestalde, badira beste mota batetako esku jokoak, hala nola, heldu eta haurren artekoak, adibidez: “Arrautzarena” eta “Txalo txin”. Jolas hauek Lakar eta Telletxea (2006) liburutik ateratakoak dira. Arrautzarena jolasean, helduak normalean haurrari eskua hartu eta hatzak banan-banan ukituz (hatz txikitik hatz lodira) honela esaten dio haurrari:

*Honek arrautza ekarri,
honek frijitu,
honek gatza eman,
honek probatu,
eta honek dena jan!*

Txalo txin jolasean berriz, helduak abestiaren erritmoarekin batera txaloak egiten ditu eta haurrak helduarekin batera gauza bera egin behar du. Abestia:

*Talo talo, talo txin
Gure haurrak port otxin.
Port otxinen saria,
xamari txarrian ekarria.
Amatxi zatoz,
opil handi batekin
Zopaz ase gaitezen.
Txin, txin, txin.*

Lekaroz (Baztan)

▪ *Kuriketan* (ezkutatzeke jolasa):

Jolas hau ere Lakar eta Telletxea (2006) liburutik ateratakoa da. Ezkutaketan jolasteko ohiko modua da. Lehendabizi zotz egin behar da, betetzen nor geratuko den aukeratzeko. Kasu honetan primeran etorriko zaigu hurrekin landutako zotz egiteko formula ezberdinak. Zotz egiteko denak biribilean jarri eta batek honako hitz hauek esango ditu adibidez, banan-banan jolaskide guztiak seinalatuz: *Dona, dona, katona sutondoan aitona,lepotik behera kuttuna,kanpora neska-mutil tuntuna,azeituna, babarruna,atera dadila neska-mutil tuntuna.*

Bete izatea egokitzen zaiona pareta edo zuhaitz baten kontra jarriko da begiak besoekin estalita. Aurretik adostutako kopurua zenbatu beharko du beste jokalaria guztiak ezkututzen diren bitartean. Kontatu ondoren, begiak ireki gabe, honako esaldi hau ozen esango du:

*Kuriketan, konketan,
Eperra, txoketan,
nire ondoan dantzatzen denak
bera beteko!
Kirik!*

Oraindik guztiak ezkutatu ez badira, "Oraindik ez!" esango dute, beraz betek begiak zabaldu gabe berriro ere berdina errepikatuko du: "*Kuriketan, konketan, ...*"

Ezkutatu behar zutenek gordeleku egokia aurkitu badute, "kurik" hitza erantzungo diote betetzen dagoenari, oraingoan guztiak ezkutaturik badaude "BAI!" esan beharko dute.

Denak ezkutatuta daudenean bete dena beraien bila abiatuko da. Norbait ikusitakoan "... Ikusi dut" oihukatuz pareta edo zuhaitza ukituko du. Adibidez, ikusi duena Aritz bada "Aritz ikusi dut" esango du. Horrela jarraituko du ezkutatutako guztiak aurkitu arte.

Gordeta dagoen norbaitek betetzen dagoena ikusi baino lehen pareta ukitzen badu eta bere izena esaten badu, bete denak berriro zenbatu beharko du eta jolasari hasiera emango zaio berriro.

Jolas honetan nor bere burua libratzeko, beteak zenbatu duen lekura joan pareta edo arbola ukitu eta esan beharko du: "*Niregatik!*". Aipatzekoa dut leku edo zonaldearen arabera hau ere aldatu egiten dela, adibidez: Paio, libre, Xalmo, etab.

Jolasean nahastea edo ikusi ez den lagunen baten izena esaten bada, "*Txutxupe!*" esan ohi da. Kasu honetan betek berriro zenbatzen du eta ezkututzen direnak lekuz aldatzeko aukera izaten dute.

- *Sorginka* (harrapaketa jolasa):

Jolas hau ere "Baztan jolasean. Ahozko tradizioaren bilduma" izeneko liburutik ateratakoa da Harrapaketetan jolas mota bat da, lehendabizi zotz egin behar da bete edo harrapatzailea nor izango den jakin ahal izateko. Bete izango ez direnen kopuruaren arabera bete bat edo gehiago egon daitezke. Anitzen adibidez, betea aukeratzeko zotz egiteko formula honakoa erabiltzen zuten:

*Don-don, kandel,
miki-maka, mokatel,
larre on, larre on,
bitoria, gris fuera.*

Behin betea nor izango zen erabakitzen zutenean, honek makil bat hartu eta "prisionero" bezala geratzen zen. Gainerakoek honakoa abesten zuten betea xaxatzeko asmoarekin:

*Gaztelu, zipili-zapelu,
zerri kapelu.
Hi kapelu, ni kapelu,
urde kapelu.*

Behin hori abestuta, harrapatzailea edo betea besteen atzetik korrika hasten zen eta harrapatuak izaten zirenak eskutik helduta jarri beharra izaten zuten. Harrapatuak izaten zirenak salbatuak ere izan zitezkeen, baina horretarako harrapatuak ez zeuden gainerako jokalariai beraiengana hurbildu eta harrapatuak zeudenak ukitzarekin soilik “libre” geratzen ziren, eta jolasten jarraitu zezaketen betek berriro ere harrapatu arte.

Jolasa amaitzen zen partaide guztiak harrapatuak zeudenean, hau da, guztiak eskutik emanda zeudenean.

- *Sokasaltoan:*

Soka saltoan aritzeko abesti eta modu ezberdinak daude. Normalean bakarka edo hiru pertsonak (edo gehiagok) jolasteko jolasa da. Jarduera ludiko hau entzumenezko, mugimenduzko eta trebetasunezko jokia da. Oso garrantzitsua da saltoka ari den haurrak abestiaren erritmoa jarraitzea. Jolas hauek “Aisia.net” (<http://www.aisia.net/jolasak/sokasalto-jolasa>) izeneko web-gunetik ateratakoak dira.

Sokasaltoan aritzeko modu ezberdinak honakoak izan daitezke:

- Jolas hau Aisia.net webgunean aurkitu dezakegu (<http://www.aisia.net/jolasak/sokasalto-jolasa/txominen-andria>).

Jolas honetan bi lagunek sokari eragingo diote. Jolasaren hitzak abestuz beste jolaskide bat saltoka arituko da abestiaren erritmoa jarraituz. Kanta osoa bukatzerakoan berriro abestuko dute kanta bera baina oraingo honetan askoz ere erritmo biziagoan. Bigarren aldi honetan hasierako jolaskide berak salto egingo du.

*Bat, bi, hiru eta lau
Txominek andrea falta dau
Txominek dauka dendia
sagar ustelez betia
sagar ustelak saldutakoan
topatuko du andrea.*

- Sugea deituriko jolas hau Aisia.net web-gunetik ateratakoa da (<http://www.aisia.net/jolasak/sokasalto-jolasa/sugea>).

Jolas honetan bi lagunek sokari eragiten diote. Soka abestiarekin batera suge baten antzera mugitu behar da. Haur guztiek momentu berean jolastuko dute, beraz, bata bestearen atzetik, sokaren gainetik salto egin behar dute soka zapaldu gabe.

*Siga saga sigi saga
Sugea dabil lurrean
Sigi saga sigi saga
Sugea dabil lurrean
Kontuz, ez zapaldu!
Salto egin airean.*

- “Haria mataza” izeneko jolas hau haur jokoak bildu eta azaltzen dituen (<http://www.aisia.net/jolasak/sokasalto-jolasa/haria-mataza>) webgunetik ateratakoa da. Jolas honetan bi taldekidek sokari goraka eragiten dioten bitartean, besteek ilara batean itxarongo dute. Abestiarekin batera, salto bana egin beharko dute banan-banan eta jarraian. HARIA hitza aipatzen denean, lagun bat sokan sartuko da, salto bat egingo du eta atera egingo da. Hurrengo hitzarekin (MATAZA), ilaran haren atzean zegoenak berdin egingo du: sokan sartu, salto bat egin eta sokatik atera. Berdina errepikatuko dute abestiaren hitz guztiak esan arte. Abestia behin eta berriro abestuko dute jolaskide guztiak pasatu arte.

Lagun guztiek salto bana egin dutenean, abestia berriro errepikatuko da, baina oraingo honetan jokalaria bakoitzak bi salto egingo ditu. Lehengo saltokariak HARIA eta MATAZA hitzekin bi salto egingo ditu. Jarraian, bigarren saltokaria sartuko da eta LODIA eta SAN PEDRO hitzekin beste bi salto egingo ditu. Oraingo honetan ere, jolaskide guztiak pasatu arte errepikatuko da abestia.

Azkeneko txandan, jolaskide bakoitzak hiru salto egin beharko ditu. Lehengoak HARIA, MATAZA eta LODIA hitzekin salto egingo du, eta bigarrenak, berriz SAN PEDRO, TXIKIA eta FUERA hitzekin.

*Haria
mataza
lodia
san pedro
txikia
fuera!*

4.3.1 La colaboración entre el hijo/a y la familia

Gracias a las actividades lúdicas que se han podido trabajar en clase anteriormente, los niños/as han podido mejorar e incluso enriquecer el euskera. Ahora el objetivo es realizar lo mismo pero en casa gracias a la ayuda de los familiares de cada alumno/a. Para ello es imprescindible la total implicación de los padres o de cualquier miembro de la familia.

En este caso, como es una actividad que se realiza fuera de los horarios de las escuelas, los profesores solamente podemos dar consejos sobre el material que pueden utilizar los padres o familiares para poder enseñar y trabajar en el folclore infantil. Otra ayuda que podemos ofrecerles es la aclaración de las dudas que les puedan surgir según se va trabajando el folclore infantil.

Cada uno ya sabe que el tesoro más grande que posee son sus hijos/as, por ello, todos los momentos que se juegan o se pasan con ellos, es el regalo más preciado y valioso que se le puede ofrecer al niño/a.

Uno de los libros que podemos y debemos recomendar a los padres para que puedan enseñarles y transmitirles el folclore infantil a sus hijos/as se llama *Kontu txikiak* (Sortzen ikasbatuaz, 2003). Este libro, gracias a los que realizan el programa llamado Euskaraz Mintz@, ofrece la oportunidad y la ayuda a los padres para que puedan jugar con sus hijos o hijas utilizando el euskera (siendo vascos o no), ya que las explicaciones que se dan en euskera, también aparecen en castellano. Uno de los ejemplos que aparecen en la recopilación *Kontu txikiak* en el que se ve una explicación expresada en los dos idiomas:

“Hauraren eskuak hartu eta, kantatzen dugun bitartean, haiekin egin daitezkeen mugimenduak irakatsi.

Cogiendo las manos del niño o de la niña, le enseñamos diversos movimientos con ellas mientras le cantamos” (Sortzen ikasbatuaz, 2003, 14) .

El libro mencionado está dirigido a padres, familiares y educadores de niños/as de 0 a 6 años. Los recursos aparecen escritos en euskera, como por ejemplo, las canciones de la tradición oral vasca, los refranes, los juegos infantiles, etc. Además de ello he de

mencionar que, para que cada uno pueda utilizar el euskera que utiliza en la zona de donde proviene, los recursos vienen detallados en diferentes variantes. Un ejemplo claro de lo mencionado sería lo siguiente (Sortzen ikasbatuaz, 2003, 3):

<i>Pin pin xoria,</i>	<i>Xori papo gorria</i>
<i>Xori papo gorria.</i>	<i>Pan, pan! Zaparta,</i>
<i>Jan, jan, koinata,</i>	<i>Xori salsa on baita!</i>
<i>Xori salsa on bat da.</i>	

(Saran bildua)

(Hendaian bildua)

Por un lado, este libro reúne diferentes canciones para cada situación o necesidad que se da en los niños. Estas son canciones que se cantan cuando le damos de comer al niño/a, cuando éstos reciben un golpe o se hacen daño, para dormir, al balancearnos con ellos en brazos, para cuando empiezan a caminar, etc.

Por otro lado, este libro reúne diferentes tipos de juegos como juegos de manos, juegos para jugar al escondite (“kuriketán”), juegos que se realizan en corro o incluso realizando un puente (“zubian eta korruan”), etc. En las páginas que podemos encontrar este tipo de juegos, también podemos encontrar pequeños resúmenes de cómo se juega a cada uno de esos juegos. En el juego del puente llamado “Ama girgir” podemos encontrar una breve información, como la que os voy a enseñar a continuación, sobre cómo podemos jugar o cómo se juega a ese juego. La información que nos ofrecen en este libro está escrita en euskera pero ahora os la daré en castellano:

“Dos, agarrados de la mano, realizarán un puente. Esos/as dos elegirán una cosa cada uno/a: por ejemplo, uno elegirá chocolate, y el otro fresa. Los demás niños/as se pondrán en fila y tendrán que pasar por debajo del puente realizado por sus compañeros o compañeras. Cuando se termine la canción, atraparán a alguno/a, y les preguntarán que prefieren, en este caso, si chocolate o fresa. Según lo elegido se colocarán detrás de uno u otro” (Sortzen ikasbatuaz, 2003, 24).

En las canciones o actividades que están reunidas en este libro anteriormente mencionado, aparecen unas imágenes en que mediante ellas se explica los

movimientos que hay que realizar al escuchar cada canción, o si no, explicando cómo hay que realizar la actividad o las actividades. Este ejemplo lo podemos encontrar en una canción tradicional.

En el libro (Sortzen ikasbatuaz, 2003, 18) aparece una canción llamada “Han zeuden: (animaliak)”, además de aparecer la letra, hay unas imágenes que nos expresan o informan de los movimientos o de la danza que podemos realizar a medida que vamos escuchando la canción. Cuando en la canción se menciona “krokodiloa” (cocodrilo), en este libro aparece una imagen en la que nos enseña cómo podemos representar a un cocodrilo. Cuando en la canción escuchamos “tximua” (mono), nos enseñan cómo podemos representar al mono y cuando escuchamos “oiloa” (gallina), cómo podemos representar a la gallina.

La citada obra está formada también por un vocabulario infantil. Este vocabulario infantil lo podemos encontrar en las primeras páginas del libro. En este breve glosario nos encontramos con palabras que suelen ser utilizadas por los niños/as, y en el lateral junto a ellas, podemos encontrar escrito qué es lo que quieren decir esas palabras en el lenguaje de los adultos, tanto en euskera como en castellano. Por ejemplo:

Txista ----- Ziztatu ----- Picar/pinchar

Además de ello, en las canciones que aparecen en el libro, podemos encontrar un rectángulo azul en el que aparecen escritas palabras del vocabulario infantil relacionadas con la letra o tema de las canciones que aparecen en esa misma página. Por ejemplo: En la página que aparecen las canciones relacionadas con el tema de dar de comer a los niños/as, aparece un rectángulo azul en el que pone “Onomatopeiak eta haur hiztegia” (onomatopeyas y vocabulario infantil) (ibid., 3):

- mau-mau, ñam-ñam.
- kokate, mokolo, kokolo (chocolate).
- papa (ogia-pan), popa (sopa), ttitti (leche de la madre).
- lollo, lele, eñe (leche de la madre), txitxi (carne), koko (huevo), mama (agua o alguna otra bebida).

Entre los libros que los profesores o las profesoras podemos recomendar a los padres, hay otro que se llama “Jolas tailerrak”. En este, los que realizan el programa Euskaraz Mintz@, han conseguido reunir muchos más juegos para niños/as. Estos juegos son dirigidos a los padres o familiares y en ellos se ofrece la ayuda para que puedan jugar con sus niños utilizando el euskera.

Los juegos que están reunidos en este libro son, el juego de la comba (sokasalto), al pillar-pillar (harrapaketa), el juego de la goma (goma jolasa), los juegos que se realizan en corro (korruko jolasak), juegos para realizar con las manos (esku jolasak), diferentes fórmulas para realizar sorteos (zotz egiteko formulak), etc. En este libro, como en el anteriormente mencionado, aparece la explicación de cada actividad, e incluso en algunas, podemos encontrar la ayuda de imágenes para poder entenderlo más fácilmente.

Por último, debo mencionar que las recopilaciones de Sortzen Ikasbatuaz (2001, 2003) también incluyen un CD, con las canciones como las ya mencionadas anteriormente. De éste modo, si nos gusta una canción de este libro, pero no nos es conocida, o no nos acordamos de la melodía, podremos escucharla en el CD mientras leemos la letra escrita de la canción. Así mismo, una vez aprendida la canción, podremos enseñársela a nuestros hijos/as las veces que queramos.

4.4. Haur folklorea ikasgela barruan eta kanpoan

Jarraian ekintza zehatz batzuen aurrean irakasleok haurrengana zuzentzerakoan erabili ditzakegun hainbat abestien inguruan hitz egingo dut orain.

Gaur egun geroz eta gutxiago entzuten dira honelako abestiak irakasleen ahotik irteten. Guraso askok ere ia ez dituzte erabiltzen, eta erabiltzen badituzte gehienak erdaraz izaten dira normalean. Hori horrela izanik, irtenbiderik egokiena irakasleok hauen erabilera bultzatzea izango da, egunerokotasunean modu natural eta egoki batean, ikasgela barruan zein kanpoan erabiliz.

Hurrek burutu edo hurrei gertatutako ekintza zehatz batzuen aurrean irakasleak abesti berdinak erabiltzen baditu ekintza bera ematen den kasuetan, hurrek buruz ikasiko dituzte abesti horiek, eta ondoren gelako artean, eskolako beste lagunekin, eskolaz kanpo lagunekin, senideekin, jolasten ari direnean, etab. modu inkontziente batean erabiliko dituzte. Beraz, hauen erabilerari esker hurrek beraien euskara aberastuko dute eta aldi berean abesti hauen ahozko transmisioak pixkanaka-pixkanaka gora egingo du.

Abesti asko aurki ditzakegu ekintza bakoitzaren aurrean abestu ahal ditzakegunak, baina ni soilik jarraian aipatuko ditudan abestietan zentratuko naiz. Abesti hauetako batzuk Lakar eta Telletxea (2006) ikertzaileek bildutakoak dira. Ekintza edo egoera zehatz batzuen aurrean irakasleak ezagutu, ikasi, menperatu eta modu natural batean erabili beharko dituen abestietako batzuk honakoak izango dira:

- *Hortzak erortzen direnean*

Adin hauetan, 5 urtez batez ere, hortzak erortzen hasten zaizkie, eta askotan gelan bertan erortzen zaizkie. Kasu hauetan honako abestia abestuko genieke hortza lehenengo aldiz eroriko balitzaie:

Xagu xaharra,
to xaharra,
ekartzak berria.

Garai batean abesti hau hurrari abestu ondoren, paretako zuloan sartzen zuten hortza.

Erortzen zaien hortza lehenengoa ez bada ordea, honelako abestia abestuko diegu:

To txarra, ekarrak berria,
oxk-oxkatua,
ta ekarrak lehenbailehen.

Garai batean hau abestu ondoren eroritako hortza hartu eta sutara bota ondoren, aipatutako abesti hau abesten zitzaion haurrari. Gaur egun ordea, hortza gordetzeko esaten zaio haurrari etxera eraman eta gurasoei erakusteko.

- *Mina hartutakoan*

Haurren batek mina hartzen duen unean, modu ezberdinak daude haurrari abestu eta honen bidez haurra lasaitzeko. Normalean zonaldearen arabera bata edo bestea erabiltzen da, irakasleak nahi duena aukeratu eta erabil dezake. Adibidez:

*Senda-senda mina,
gan da putxurrina,
ako mina!*

Almandoz (Baztan)

*Gan da, gan da mina,
ahuntzaren putxurrina.*

Lekaroz (Baztan)

*Joan da mina,
Putz urrina.*

Joan da (ipurdi)ko mina.

Joan da (Arantza)ren mina.

Amaiur (Baztan)

- *Haurrak jan dezala*

Ikastetxe gehienetan jantokia izaten dute eta bertan haur asko bazkaltzen geratzen dira. Hori horrela izanik, eskolaratzeko lehendabiziko urtean (2-3 urte) haur batzuek zailtasunak izaten dituzte bazkaltzeko orduan. Hori horrela izanik, eta irakasleak edo kasu honetan jantokiko arduradunak honelako abestia haurrari abestea gomendagarria litzateke haurra lasaitu eta jaten lagundu ahal izateko. Kasu honetan ere zonaldearen arabera honelako abestiak aldatu egin daitezke, beraz, irakasleak edo abestuko duen helduak erabakiko du zein erabili nahi duen. Adibidez:

*Txitxi tela,
papa tela...*

*Bihar dela bazko,
etzi xingar moko,
arrautza eta koxko.
Nik axala,
hik mamia,
Krik! Ahorako!*

Aniz (Baztan)

- *Haizeak bota eta kaka egiten laguntzeko*

Haur batzuek adin hauetan ere zailtasunak izaten dituzte kaka egiteko, eta horren ondorioz sabeleko mina izaten dute. Haurrengan horrelako sintomak nabaritzen gero, gomendagarria da haurraren sabela igurtziz edo haurrarekin komunera joanez, honelako abestiak abestea. Adibidez:

*Xangolo-mangolo,
gure haurra nongo?
Ona bada guretako,
gaiztoa bada Markelaingo,
Ez dutela beharrik,
badituztela franko.
Orduan? Tturrutt,
Putz hobeki botatzeko.
Ez, ez guretako.*

Atetz

Kasu honetan ere irakasleak erabakiko du zein abesti erabiliko duen, hau ere zonaldearen arabera aldatu egiten baita.

- *Lo egiteko kantak*

Ikastetxe askotan txikienek bazkal ostean siesta egiteko aukera izaten dute, eta horretarako gela prestatu bat izaten dute. Normalean beraiekin siestan irakasle edo zaintzailerren bat izaten dute. Adin hauetan (2-3urte) askok lo egiteko orduan beldurrak, amets gaiztoak, etab. izaten dituzte. Hori horrela izanik, badaude haurrari abesteko zenbait abesti, zonaldearen arabera antzekoak baina berdinak ez direnak. Irakasleak edo zaintzaileak honelako abestiren bat jakitea eta haurrari abestea oso aberatsa eta baliagarria litzateke haurrarentzat.

Abestia abesteaz gain, gomendagarria izaten da haurra besarkatu, laztandu, musukatu, etab. egitea, batez ere haurra lasaiago senti dadin. Honelako egoeretan abestu ditzakegun abestietako batzuen adibideak honakoak ditugu:

*Haurra eginzu lotto, lotto,
nik emanen bi kokotto.
Orain bat eta gero bertzea,
arratsaldian txokolatea.*

Lekaroz (Baztan)

*Haurra egizu bi lolo
Nik emango dizut bi koko
Orain bat eta gero bertzia
Arratsaldian txokolata
Haurra egizu bi lolo
Nik emango dizut bi koko.*

Irurita (Baztan)

*Binbilin bonbolon jan eta lo,
Erregea Frantzian balego.
Idiak soinu,
akerrak dantza,
astoak danbolina jo.
Danbolin hori da berria,
Donostiatik ekarria.
Bazter guztiak perlaz beteak,
Erdian urre gorria.*

Bozate (Arizkun, Baztan)

*Momoloxtina momoilo.
Otsoak jan du artzaia,
otsokumeak bildotsa.
Ai, nere bihotza!*

Berroeta (Baztan)

CONCLUSIONES

En primer lugar comentaré las conclusiones generales a las que he llegado en la realización de este trabajo. Posteriormente, me referiré a alguna cuestión que queda abierta tras la conclusión de este proyecto.

En un principio, mi hipótesis era que en las escuelas o en los colegios, refiriéndonos al folclore infantil, había un vacío muy grande. Empezando a analizar lo dicho, me he dado cuenta de que mi hipótesis es una de las realidades de las escuelas de hoy en día. Para afirmar esto me baso en las prácticas realizadas durante toda la carrera y sobre todo en la falta de información que he hallado en internet acerca de las unidades didácticas sobre literatura oral infantil. Por lo tanto, el no encontrar ningún trabajo o ninguna unidad didáctica sobre el folclore infantil, o incluso el no encontrar la manera de trabajar con los alumnos los elementos que reúne tradición oral, hace que reafirme mi hipótesis.

Después de realizar el estudio de la literatura oral infantil, me he dado cuenta de que todavía no somos conscientes de la influencia positiva que tiene ésta hacia los niños y hacia los adultos, pero sobre todo, en la riqueza y en la profundización que se consigue en el idioma gracias a la utilización de ésta.

En un principio, exactamente cuando empecé a hacer este trabajo, no creía que hubiera tanto material relacionado con la literatura oral infantil. Gracias a este trabajo, me he dado cuenta de que la tradición oral infantil incluye muchos elementos, como pueden ser las canciones para dormir (nanas), los poemas, los juegos infantiles, los trabalenguas, los refranes, las adivinanzas, etc.

Gracias a esas piezas literarias, conseguimos que el alumno/a aprenda mientras juega y se socialice con los demás, ya que para poder utilizar esos elementos que reúne la literatura oral infantil, es imprescindible la presencia o participación de varias personas.

El entorno lúdico en el que se transmite la literatura oral en el aula, hace que el niño/a cuando sale de ella quiera reproducir la misma situación o entorno en el que se ha producido, como por ejemplo con sus amigos, familiares, vecinos, etc. Por lo tanto si

esas piezas líricas mencionadas anteriormente son transmitidas en euskera, se conseguirá sacar el uso de esta lengua del estricto ámbito del aula.

Además de lo mencionado, esas piezas literarias referidas anteriormente mejoran o influyen en el aprendizaje del idioma, en la representación de diferentes situaciones: trabajar la imaginación, conocer los sentimientos, trabajar las distintas habilidades, etc.

Por desgracia, la utilización de estos elementos en las escuelas es muy escasa, lo que me induce a decir que lo que se menciona teóricamente en el *currículum* acerca de la enseñanza y del desarrollo de la literatura oral infantil, no lo vemos claramente plasmado en la realidad.

Teniendo en cuenta lo visto anteriormente, mi objetivo ha sido realizar una propuesta global para trabajar estos elementos que reúne el folclore infantil en el aula, fuera del aula pero dentro del ámbito escolar, así como conjuntamente con la familia.

El material que he obtenido y he utilizado para realizar las propuestas, es de recopilaciones de hace varios años y de recopilaciones de hace poco o incluso de hoy en día. Con esto quiero decir que además del material recopilado por los folcloristas de los siglos XIX y XX en el idioma vasco no estandarizado, hoy en día también podemos encontrar libros en euskera estándar, conocido como “euskara batua” o libros en distintos dialectos de la lengua vasca, según en las zonas que se hayan hecho las recopilaciones. Por lo tanto esto hace que facilite, en este caso a los profesores, el entendimiento de los libros y sus textos a la hora de realizar la selección.

Gracias a las propuestas que he realizado, he podido analizar que es posible trabajar el folclore infantil en clase, pero que esto conlleva muchísimo trabajo oculto. Cuando digo trabajo oculto, me refiero a que el colegio debe realizar una recopilación de todo el material que se pueda adquirir sobre el folclore infantil y hacer una selección de todo ello para que luego pueda ser utilizarlo en clase, con el objetivo de poder mejorar la competencia oral de los alumnos.

Al inicio y a lo largo de la estructuración o de los planteamientos de mis propuestas, me he dado cuenta de la gran dificultad que conlleva el planteamiento de un modo de enseñanza de los elementos que reúne la literatura oral infantil. Por ello, para que los

profesores/as puedan obtener más información acerca de cómo pueden o deben utilizar el material y cómo pueden ellos mejorar los conocimientos acerca del material mencionado anteriormente, sería conveniente que todos acudieran a cursos de formación que se organizan acerca de la utilización del folclore infantil en las aulas.

Por último, una vez realizadas mis propuestas, solo me quedaría realizar una evaluación para poder analizar si el modo de enseñanza de las piezas líricas que he planteado es correcto o hay que realizar algunos cambios, si el tiempo que le dediquemos a la enseñanza de estos elementos es suficiente o no, si en la propuesta que he establecido sobre la colaboración de los familiares en el aula se realiza adecuadamente o no, etc.

ERREFERENTZIAK

- *Erabilitako bibliografia:*

Arranz, I. (2006). *Hitza azti*. Irun: Alberdania.

Azkue, R.M. (1966). *Euskalerrriaren Yakintza* (2. lib.). Madril: Espasa-Calpe.

Bellido, J. (2010) La tradición oral en la etapa infantil.

[Sarean (2013/05/13): http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_35/JERONIMO%20JOSE_BELLIDO_1.pdf]

Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madril: Síntesis.

Etxaniz, X. (1986). *Haur folkloreaken bilduma*. Iruña: Pamiela.

Eusko Jaurlaritza (2009). *Herri literatura*. Donostia: Grafo.

Galtzagorri elkarte (2007). *Bularretik mintzora. Kantak, poemak, ipuinak*. Liburuxka eta CDa. Gipuzkoa: Galtzagorri elkarte.

Lakar, M. eta Telletxea, A. (2006). *Baztan solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*. Iruña: Baztango Udala eta Nafarroako Gobernu.

Lekuona, M. (1964). *Literatura oral vasca*. San Sebastian: Auñamendi.

Nafarroako Gobernu. (2003). *Supazterreko eleak*. Iruña: Litografia Ipar.

_____ (2007). *Curriculum. Haur Hezkuntza. 2. zikloa*. Iruña: Nafarroako Gobernu.

Olaizola, J. M. (2004 [2000]). *Axa, mixa, zilarra*. Donostia: Elkarlanean.

Ormazabal, J. (1981). *Esaera zaharrak eta txiste berriak*. Donostia: Elkar.

Sortzen Ikasbatuaz (2001). *Euskaraz mintza jolas tailerrak*. Liburuxka eta CDa. Nafarroa: Nafarroako Gobernu eta Sortzen Ikasbatuaz.

_____ (2003). *Kontu txikiak. Haur eta gurasoen elkargozamenerako*. Liburuxka eta CDa. Nafarroa: Sortzen Ikasbatuaz.

UNESCO [Sarean (2013/05/10): <http://www.unesco.org/culture/ich/?lg=es&pg=00053>]

Urtxintxa Eskola (2010). *Euskal jolasak*. Donostia: Antza.

- *Aipatutakoak:*

Aita Donostia (1922). *Cancionero vasco*. Donostia : Varios.

Azkue, R.M. (1918). *Cancionero popular vasco* (2.lib.). Bilbao: Euskaltzaindia.

BARANDIARAN, J.M. (1973) Eusko-Folklore. *Obras completas*. (2. lib.). Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

ZABALA, A. (1998) *Euskal erromantzeak*. Gipuzkoa: Sendoa.

- *Begiratutako webguneak:*

Ahozkoa lantzeko [Sarean (2013/05/24):

<http://b08normalkuntza.wikispaces.com/AHOZKOA+LANTZEKO>].

Ahozkotasuna[Sarean2013/05/24):

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_xslt&Itemid=474&lang=en&layout=lth_detail&search=ahozkotasun&view=frontpage].

Derrigorrezko hezkuntzan folkloreaken irakaskuntzaz hausnarketa batzuk

[Sarean(2013/05/16):<http://www.euskonews.com/0118zkb/gaia11801eu.html>]

Euskal ahozko literatura

[Sarean(2013/05/14):http://eu.wikipedia.org/wiki/Ahozko_euskal_literatura].

Euskal ahozko literatura biltzaileak [Sarean (2013/05/12):

<http://es.slideshare.net/martasena/ahozko-literatura-2914744>].

Euskal ahozko tradizioa [Sarean (2013/05/12):

<http://www.mendebalde.com/modulos/usuariosFtp/conexion/archi384A.pdf>].

Kantuz eta jolastuz komunikazioa lantzen [Sarean (2013/05/22):

<http://www.ueu.org/ikasi/ikastaroa-ikusi/417/Kantuz%20Beta%20jolastuz%20komunikazioa%20lantzen>].

Literaturan murgildurik ahozko euskal literatura jendaurreko azalpena: 2.DBH-rako materiala [Sarean (2013/05/24):

http://nagusia.berritzeguneak.net/hizkuntzak/descargas/3htb/3221Ahozko_azalpena.pdf].

- *Corpusa ateratzeko erabilitako iturriak:*

Aho korapiloak eta zotz egiteko formulak [Sarean (2013/05/21):

http://centros.educacion.navarra.es/eibz/baliabideak/a_materiala/0708/hh_zotz.htm]

Atsotitzak [Sarean (2013/05/19):

<http://ikasdezagun.blogspot.com.es/2011/11/atsotitzak.html>]

Hitz jokoak [Sarean (2013/05/20):

<http://alaibizi.blogspot.com.es/2010/01/hitz-jokoak.html>].

Olerkiak [Sarean (2013/05/19):

<http://kurubioa.blogspot.com.es/2010/05/olerkiak.html>].